

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3944

AGINDUA, 2022ko abuztuaren 31koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuan (2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen duena) aurreikusitako lankidetzarako laguntzak emateko 2022. urterako deialdiaren oinarriak onartzen dituena.

Nekazaritza Politika Erkidearen finantzaketari buruzko Kontseiluaren ekainaren 21eko 1290/2005 (EE) Erregelamenduaren bidez, Nekazaritzako Europako Berme Funtza (FEAGA) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (FEADER) sortu ziren, lehenengoa, merkaturako neurriak eta beste neurri batzuk finantzatzeko, eta, bigarrena, landa-garapenerako programak finantzatzeko.

1305/2013 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 17koa, landa-garapenari Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren bitartez laguntzeari buruzkoa da eta erregelamendu horren bidez Kontseiluaren 1698/2005 Erregelamendua indargabetzen da. Europar Batasunak landa-garapenerako ematen dituen laguntzak –Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsak finantzatuta– arautzen dituzten arau orokorrak ezartzen ditu erregelamendu horrek. Funtts hori 1306/2013 (EB) Erregelamenduaren bidez ezarri zen. Erregelamendu horrek landa-garapenaren alorrean landa-garapenaren politikak eta Europar Batasunaren lehentasunak betetzeko helburuak ezartzen ditu, eta landa-garapenaren testuinguru estrategikoa ezarri eta landa-garapenaren politika gauzatzeko hartu behar diren neurriak zehazten ditu.

1305/2013 (EE) Erregelamenduaren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenaren, 2013ko abenduaren 17koaren, 35. artikulua laguntza mota bat ezartzen du, «lankidetzarako» laguntza.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2020 Landa Garapenerako Programa prestatu da, zeina Europako Batzordearen 2015eko maiatzaren 26ko C (2015) 3479 Erabakiaren bidez onartu baitzen. Europar Batasunak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkarrekin finantzatzen dituzten neurriak martxan jartzea da programa horren helburua.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2020ko Landa Garapenerako Programan –M16 neurria, «lankidetzara»– jasota dago laguntza-mota hori, zein lankidetzaren hainbat alderdi zehazten dituzten zazpi azpineurritan sailkatzen baita. Berrikuntzaren bidez landa-ingurunearen lehiakortasunean aurrera egiteko lankidetzara sustatzen dute neurri horiek, banaketa-kate motzen eta tokiko merkaturaren garapena bultzatzen, eta berrikuntza-proiektuetan sektorearen partaidetza eta lankidetzara indartzen.

Beste alde batetik, 1407/2013 (EB) Erregelamenduak, Batzordearenak, 2013ko abenduaren 18koak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoak, Estatuko laguntzek minimis araubide honi atxikitako laguntza gisa onartzeko bete behar dituzten baldintzak jasotzen ditu, baimenik eman edo jakinarazpenik egin beharrik izan gabe.

Halaber, 2017ko otsailaren 17an argitaratu zen otsailaren 14ko 43/2017 Dekretua, EAEko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen duena, zeinaren xedea baita Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan landa-garapenerako laguntzen

esparru-araudia ezartzea, 1305/2013 (EB) Erregelamenduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenean, 2013ko abenduaren 17koan, xedatutakoarekin eta 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programarekin bat etorritz.

Hala eta guztiz ere, EBren Urte Anitzeko Finantza Esparruaren onarpenean eta Nekazaritza Politika Bateratuaren erreformari buruzko negoziazioetan izandako atzerapena dela-eta, NPB berria eta haren Plan Estrategikoak ez dira 2023ra arte indarrean jarriko, Europako Parlamentuaren, Europako Kontseiluaren eta Europako Batzordearen beharrezkoak diren arauak oraindik ez baitira onartu.

Hala, 2020/2220 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2020ko abenduaren 23koa, argitaratu da (2020/2220 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2020ko abenduaren 23koa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren (FEADER) eta Nekazaritza Bermatzeko Europako Funttsaren (FEAGA) zenbait xedapen iragankor ezartzen dituen 2021. eta 2022. urteetan, eta erregelamendu hauek aldatzen dituen: 1305/2013 (EB), 1306/2013 eta 1307/2013 (EB) erregelamenduak, errekurtsioei eta erregelamenduen aplikazioari dagokienez, 2021. eta 2022. urteetan, eta 1308/2013 (EB) Erregelamendua, errekurtsioei eta laguntza horren banaketari dagokienez, 2021. eta 2022. urteetan). Erregelamendu horren xedea segurtasuna eta jarraitutasuna ematea da, nekazariarentzat eta Europako nekazaritza-erentzat emandako laguntzei, bai eta trantsizio-aldian landa-garapenerako laguntzen jarraitutasuna bermatzea ere, horretarako egungo esparru juridikoa zabalduz, lehen zutabeari (FEAGA) zein bigarren zutabeari (FEADER) dagokienez, harik eta NPE berria indarrean sartzeko den arte.

Horretaz gain, urtarrilaren 26ko 41/2021 Errege Dekretua ere argitaratu da, errege-dekretu hauek 2021. eta 2022. urteetan aplikatzeko xedapen espezifikoak ematen dituen: 1075/2014, 1076/2014, 1077/2014 eta 1078/2014 errege-dekretuak, abenduaren 19koak, nekazaritza-politika bateratua Espainian aplikatzeko emanak. Errege-dekretu horretan, egungo landa-garapenerako programak aplikatzeko epea 2022ra arte luzatzen da, hori barnean dela.

Arau-testuinguru iragankor honetan, 1305/2013 (EB) Erregelamenduen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenaren, abenduaren 17koaren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 LGPren barruan sartzeko diren laguntzak deitzen ditu agindu-proiektuak. Gainera, deialdiak basogintza-sektoreko lankidetzarako laguntzak eta landa-eremuetako nekazaritzakoak ez diren garapen-proiektuetarako laguntzak jasotzen ditu; horiei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan, Batzordearenean, 2013ko abenduaren 18koan, ezarritakoa aplikatu beharko zaie.

Laguntza-deialdi honek aurrekontu-estaldura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legeak baimendutako kredituen arabera. Gainera, deialdi hau 2021eko martxoaren 17ko Aginduan jasota dago (Agindua, 2021eko martxoaren 17koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onesten duena 2021., 2022. eta 2023. urteetarako).

Eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearekin bat etorritz (lege horren 26.4 artikulua arabera, Jaurlaritzako kide gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, sailburuek beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskudantzia izango dute), honako hau

2022ko irailaren 9a, ostirala

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onartzea, 2022. urterako, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen duen otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuan aurreikusitako lankidetzarako laguntzak emateko deialdiaren oinarriak, agindu honen I. eranskinean jaso direnak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta bihamunean hasiko dira epeak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuak 31.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2022ko irailaren 9a, ostirala

I. ERANSKINA

I. KAPITULUA

ZATI OROKORRA

1. oinarria.– Laguntzaren xedea.

1.– Agindu honen xedea da lankidetzarako laguntzak deitzea 2022rako. Gutxienez bi erakunde-
ren arteko lankidetzak moduak sustatzea da laguntza horien helburua.

2.– Laguntza hauek 43/2017 Dekretuan ezarritakoari jarraituz ematen dira, eta haren gara-
pena eta aplikazioa dira (43/2017 Dekretua, 2017ko otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020
aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia
ezartzen baita).

3.– Araubide horrez gain, basogintza-sektoreko lankidetzarako laguntzetarako eta landa-ere-
muetako nekazaritzakoak ez diren garapen-proiektuetarako laguntzei Europar Batasunaren
Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari
buruzko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan, Batzordearenean, 2013ko abenduaren 18koan, eza-
rritakoa aplikatu beharko zaie. Araubide honetan, 200.000 euroko gehieneko laguntza emango dio
estatu kide batek enpresa bakar bati hiru zergalditako edozein alditan.

4.– Agindu honen esparruan ematen diren laguntzak lankidetzak-kostuak eta proiektu pilotuaren
kostu zuzenak estaltzeko bakarrik erabiliko dira, eta ez dira itzuli beharrekoak izango, eta proiektu-
ak urtebetean zein hainbat urtean gauzatzekoak izango dira, aurkeztutako proiektuak egiteko
aldiaren arabera.

2. oinarria.– Laguntza-lerroak.

Lankidetzarako laguntzetan, honako laguntza-lerro hauek ezarriko dira:

1.– Nekazaritza-ekoizpenaren eta -jasangarritasunaren alorrean EIPs Berrikuntzarako Euro-
pako Elkarteko (European Innovation Partnerships) talde eragileak sortzeko eta martxan jartzeko
laguntzak. Laguntzok oinarri hauen II. kapituluan garatu dira.

2.– Nekazaritza-, elikagai- eta baso-sektoreetan produktu, praktika, prozesu eta teknologia
berriak garatzeko laguntzak. Laguntzok oinarri hauen III. kapituluan garatu dira.

3.– Eragile txikien arteko lankidetzarako laguntzak, lan-prozesuak elkarrekin antolatzeko eta
instalazioak eta baliabideak partekatzeko, baita landa-turismoarekin zerikusia duten turismo-zer-
bitzuak merkaturatzeko ere. Laguntzok oinarri hauen IV. kapituluan garatu dira.

4.– Lankidetzan aritzen diren banaketa-kateko eragileentzako laguntzak, beren produktuak
merkaturatzeko eta sustatzeko, merkaturatze-bide laburrak eta tokiko merkatuak martxan jarrita
edo garatuta, baita produktuak tokian-tokian ezagutarazteko jardueretarako ere. Laguntzok oinarri
hauen V. kapituluan garatu dira.

5.– Eragileen elkarlanerako dirulaguntzak, klima-aldaketa apaltzeko edo horretara egokitzeko
eta martxan dauden ingurumen-proiektuen eta -praktiken inguruko baterako planteamenduak egi-
tekoak. Laguntzok oinarri hauen VI. kapituluan garatu dira.

6.– Banaketa-kateko eragileen arteko lankidetza horizontalerako eta bertikalerako laguntzak, elikagaiak egiteko, energia ekoizteko eta industria-prozesuak sortzeko biomasaren hornidura iraunkor bat lortzeko. Laguntzok oinarri hauen VII. kapituluan garatu dira.

7.– Jarduerak dibertsifikatzeko lankidetzarako laguntzak, honako jarduera hauekin zerikusia dutenak: osasun-arreta, gizarteratzea, komunitateak babestutako nekazaritza eta ingurumenaren eta elikadurari buruzko heziketa. Laguntzok oinarri hauen VIII. kapituluan garatu dira.

3. oinarria.– Definizioak.

Agindu honen ondorioetarako, honela ulertuko dira jarraian datozen definizioak:

1.– Berrikuntza-eragilea (brokerra): pertsona edo erakunde inpartzialak dira, proiektua burutzeko ekintzaile egokiak –enpresak, pertsonak, ikerketa-taldeak, ikerketa-entitateak, aholkularitza-erakundeak, finantza-iturriak eta abar– bilatu eta harremanetan jartzen dituztenak, proiektuan teknikoki sartuta egon beharrik gabe; hau da, eragile moduan aritzen dira berrikuntza-prozesuaren bi alderdi edo gehiagoren artean. Talde operatiboak eratzen ere laguntzen dute. Ideia berritzaileak identifikatzen dituzte, berriro definituz, hautatuz eta berrikuntzaren egileak lotuz, balioa ekar dezaketen ekimenak bultzatuz behetik gora, ideia horiek modu lehiakorrean proiektatzeko eta behar den finantzaketa aurkitzen lagunduz. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Katilu berrikuntza-eragile modura aritzeko espazio bat da, eta Brokering Innovation prozesua kudeatzeko ardura du.

2.– Nekazaritza: laborantza, abeltzaintza eta basogintza biltzen ditu.

3.– Elikagaiak: kontzeptu honen barnean sartzen da nekazaritza eta basogintzatik, arrantzatik, arrain-haztegietatik, ehizatik eta mikologiatik edo beste jatorri natural batetik datozen produktuak ekoitzi, eraldatu, ontziratu eta merkaturatzeari dagokiona.

4.– Europako Berrikuntza Elkarteak (European Innovation Partnerships, EIPs): tresna politikoak dira, ez finantza-tresnak, eta kontzeptu berri gisa sartu ziren «Berrikuntzarako batasuna» Europa 2020 Ekimenean, ideia berriak garatzea eta horiek merkatura iristea eragozten edo motel-tzen duten ikerketa eta berrikuntzarako sistema europarraren hutsuneak, hersturak eta oztopoak kentzeko. Pilotaje-talde batek zuzentzen du elkarte bakoitza, eta eragindako arloan edo arloetan erantzukizuna duen komisario europar bat edo gehiago da talde horren buru, non estatu kideetako ordezkariak (ministroak), diputatuek, enpresa-buruzagiek, ikertzaileek, gizarte zibilak eta gainerrako alderdi interesdunek parte hartzen baitute. Berrikuntzarako Europako Elkarten helburua da jarduketa sendotzea sektore publikoaren eta pribatuaren bidez, eta, horrela, lankidetzarako plata-forma komun bat sortzea.

5.– Nekazaritza-produktibitate eta -jasangarritasuneko Berrikuntzarako Europako Elkarteak: tresna politiko bat da, landa-ingurunean berrikuntza-estrategia garatzeko eta nekazaritzako elikagaien sektorean berrikuntza azkartzeko, zientzia eta praktikaren artean ezagutza-pasabidearen lana egiten duena, nekazaritzako elikagaien sektorean berrikuntza-transferentzia azkartzeko eta ingurumen inpaktu txikiago batekin gehiago ekoitziko duen nekazaritza lehiakorra lortzeko. Haren helburua nekazaritza eta basogintza lehiakorrek eta iraunkorrek sustatzea da, gutxiagorekin gehiago lortuko dutenak eta ingurumena kaltetu gabe jardungo. Lehen sektore lehiakor bat sortzen lagunduko du horrek, bermatuko duena mundu-mailan elikagaiak eskuratzea, askotariko produktu eta produkzioak izatea, jateko eta jateko ez diren lehengaiez luzarora hornitzea, baita elikagai-kateko balio erantsiaren banaketa hobea izatea ere.

6.– Banaketa-kate laburrak: hornikuntza-kate bat da, lankidetzarekin, tokiko garapen ekonomikoarekin eta gertuko eremu geografiko batean ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman sozioekonomikoekin konprometitutako agente ekonomikoen kopuru mugatu batek osatutakoa.

16.4 azpineurriaren ondorioetarako, ekoizlearen eta kontsumitzaileen artean bitarteko bat baino gehiago ez dituen hornikuntza-kateak bakarrik hartuko dira kontuan.

7.– Lankidetzak: lan-estrategia bat da, helburu bera duten eta kide bakoitzak daukanaren gainetik dagoen interes bat konpartitzen duten pertsona taldeek edo entitateek garatua, zeinek elkarlaneko metodoak eta elkartze-metodoak erabiltzen baitituzte.

8.– Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Bizia (BLEB). Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren alorreko tresna da BLEB, nekazaritzako elikagaien sektorean eta landa- eta itsas-ingurunean berrikuntza eta lankidetzak bideratzeko eta sustatzeko. Ikus <https://www.euskadi.eus/aurkezpena-berrikuntza-lankidetzak-estrategia/web01-a2nekber/eu/>

9.– Talde eragileak: EIPs Berrikuntzarako Europako Elkarteen zati dira eta horien bidez Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak berrikuntza eta EIPs-en helburuak babesten ditu landa-ingurunean, eta hori guztia gauzatzeko ekintzaile nagusiak dira. Alderdi interesdunek sortzen dituzte talde horiek: nekazariak, ikertzaileak, aholkulariak eta nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresek, esaterako. Jarduketa-entitateak dira, beren intereseko gaien inguruan eratzen direnak praktikak, prozesuak, produktuak eta zerbitzuak eta teknologia berritzaileak probatzeko eta aplikatzeko proiektuak gauzatzeko, eta proiektuak irauten duen artean soilik irauten dute, zeinetarako finantzaketa lortzen baitute.

10.– Taldea/klusterra: entitate independenteek osatutako eragile askotariko talde bat da, zeinen helburuak honako hauek baitira: jarduera ekonomiko berritzaileak bultzatzea –interakzio sakonak, instalazioak partekatzea, ezagutza eta jakintza espezializatuak trukatzeko sustatuz– eta taldea osatzen duten enpresen artean ezagutza transferitzen, sareko lanean eta informazioa zabaltzen eraginkortasunez laguntzea.

11.– Berrikuntza: produktu berri bat edo asko hobeturiko bat –ondasun zein zerbitzu–, prozesu bat, merkaturatze-metodo berri bat edo antolaketa-metodo bat ezartzea da, enpresako barne-jardunbideetan, lantokiaren antolaketan edo kanpo-harremanetan. Ez da proiektu berritzailetzat hartzen, baldin eta ezagutza sortzeak ezagutza ezartzeak baino pisu handiagoa badauka.

12.– Tokiko merkaturak: 16.4 azpineurriaren ondorioetarako, nekazaritza-elikagaiak saltzeko azokak eta merkatu tradizionalak hartuko dira tokiko merkaturatzat, dagozkien foru organoek ezarritako arauak Nekazaritza eta Elikadura Politikako 17/2008 Legearen arabera betetzen dituztenak.

13.– Proiektu pilotua: eskala txikiko proiektu esperimentalak, denboran neurtutako esfortzu bat eskatzen duena, helburu komertzialekin merkaturatu aurretik produktu, zerbitzu, prozesu edota teknologia berri bat garatzeko prozesu eta tresna berriak erabiliz irtenbide-proposamen baten funtzionamendua eta bideragarritasuna ikusteko balio duena.

14.– Landa-eremuetako nekazaritzakoa ez den garapen-proiektua. Proiektu hauetan helburua ez dago nekazaritza-produktuak ekoiztearekin lotuta, nekazaritza-produktutzat Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 1. eranskinean azaltzen diren produktuak hartuta. Ondorio hauetarako, nekazaritzakoak ez diren proiektuak dira nekazaritza-produktuak eraldatu eta merkaturatzea dutenak helburu.

4. oinarria.– Finantzaketa.

1.– II., III., IV., V., VI., VII. eta VIII. kapituluetan aurreikusitako laguntzak Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko dira, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programarekin bat, eta FEADER-en % 80ko baterako finantzaketako tasarekin.

2.– Agindu honen bidez deitutako laguntzak finantzatzeko, 179.735 euroko aurrekontu-kredituak erabiliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura, honela banatuta:

– 70.096,65 euro II. kapituluari dagozkio; horietatik, 46.731,10 euro 2022ko ekitaldirako dira, eta 23.365,55 euro 2023korako.

– 61.109,90 euro III. kapituluari dagozkio; horietatik, 40.739,93 euro 2022ko ekitaldirako dira, eta 20.369,97 euro 2023korako.

– 1.797,35 euro IV. kapituluari dagozkio; horietatik 1.198,23 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 599,16 euro 2023korako.

– 17.973,50 euro V. kapituluari dagozkio; horietatik, 11.982,33 euro 2022ko ekitaldirako dira, eta 5.991,17 euro 2023korako.

– 21.568,20 euro VI. kapituluari dagozkio; horietatik, 14378,80 euro 2022ko ekitaldirako dira, eta 7.189,40 euro 2023korako.

– 3.594,70 euro VII. kapituluari dagozkio; horietatik, 2.396,47 euro 2022ko ekitaldirako dira, eta 1.198,23 euro 2023korako.

– 3.594,70 euro VIII. kapituluari dagozkio; horietatik 2.396,47 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 1.198,23 euro 2023korako.

3.– Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari dagokionez, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programarekin bat, agindu honen bidez deitutako laguntzeta-rako kreditu zehatza 718.941 eurokoa izango da, eta EAEko erakunde ordaintzaileak egingo ditu ordainketak, honela banatuta:

– 280.386,99 euro II. kapituluari dagozkio; horietatik 186.924,66 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 93.462,33 euro 2023korako.

– 244.439,94 euro III. kapituluari dagozkio; horietatik 162.959,96 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 81.479,98 euro 2023korako.

– 7.189,41 euro IV. kapituluari dagozkio; horietatik 4.792,94 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 2.396,47 euro 2023korako.

– 71.894,10 euro V. kapituluari dagozkio; horietatik, 47.929,40 euro 2022ko ekitaldirako dira, eta 23.964,70 euro 2023korako.

– 86.272,92 euro VI. kapituluari dagozkio; horietatik 57.515,28 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 28.757,64 euro 2023korako.

– 14.378,82 euro VII. kapituluari dagozkio; horietatik 9.585,88 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 4.792,94 euro 2023korako.

– 14.378,82 euro VII. kapituluari dagozkio; horietatik 9.585,88 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 4.792,94 euro 2023korako.

4.– 2. apartatuan adierazi diren eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari atxikita dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako aurrekontu-kredituez gain, 601.324 euroko ekarpen gehigarria egingo da finantzaketa gehigarri gisa, honela banatuta:

– 234.516,36 euro II. kapituluari dagozkio; horietatik 156.344,24 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 78.172,12 euro 2023korako.

– 204.450,16 euro III. kapituluari dagozkio; horietatik 136.300,11 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 68.150,05 euro 2023korako.

– 6.013,24 euro IV. kapituluari dagozkio; horietatik 4.008,83 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 2.004,41 euro 2023korako.

– 60.132,40 euro V. kapituluari dagozkio; horietatik, 40.008,27 euro 2022ko ekitaldirako dira, eta 20.044,13 euro 2023korako.

– 72.158,88 euro VI. kapituluari dagozkio; horietatik 48.105,92 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 24.052,96 euro 2023korako.

– 12.026,48 euro VII. kapituluari dagozkio; horietatik 8.017,65 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 4.008,83 euro 2023korako.

– 12.026,48 euro VII. kapituluari dagozkio; horietatik 8.017,65 euro 2022ko ekitaldirako dira eta 4.008,83 euro 2023korako.

5. oinarria.– Eskakizun orokorrak.

Agindu honetan iragarritako edozein laguntzaren onuradun izateko, oinarri honetan ezarritako baldintzak bete behar dira. Baldintza horiek baldintza hauek guztiak jasotzen dituzte: Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko baldintzak, otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren (2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan aurreikusitako laguntzen araudi-esparrua ezartzen du) 5. artikuluan aurreikusitakoak eta hainbat laguntzen baldintza espezifikokoak, eta hauek dira horiek guztiak:

Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen edo juridikoen elkarteen kasuan, taldeko kide guzti-guztiak joko dira onuraduntzat, eta, beraz, guztiek bete behar dituzte baldintzak.

1.– Eskatzailearenak.

a) Egunean izatea indarreko xedapenek zergen eta gizarte-segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak. Eskakizun hori bete beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Beraz, alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

b) Eskatzaileek jakinarazi behar dute diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, baita eskuratu duten ala ez ere. Basogintza-sektorean garatzen diren jarduketei eta nekazaritzakoak ez diren landa-eremuetako garapen-proiektuei dagokienez, jakinaraztea oraingo zerga-ekitaldiaren justu aurreko bi zerga-ekitaldietan jasotako minimis laguntza guztiak.

c) Eskabidean jakinaraztea ea sartuta dauden ala ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edota haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasiera eman zaion itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean, eta zein den edo diren zehaztea.

d) EAEko Administrazioak edo haren mendeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan, itzultze- edo zehapen-prozeduretako kantitate zehatzen ordainketari dagokionez egunean egotea. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da baldin eta zorrak atzeratuta eta zatituta badaude, edo dagokion itzultze-ebazpena dela-eta bertan behera uztea erabaki bada. Eskakizun hori bete beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko

dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Beraz, alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

e) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor- edo administrazio-arloko epai irmorik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatik ezarritako debekuak barnean direla.

f) Konkurtso-deklaraziorik eskatu ez izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat deklarata ez egotea, konkurtsoan deklarata ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren eraginpean ez egotea, edo desgaitua ez egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

g) Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzeko zigorrik ez izatea.

h) Kausaren batean errudun deklarata izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontratuen amaiera irmoa ebatzita ez izatea.

i) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, lege horretan ezarritako baldintzetan. Horrez gain, ez egotea hauetan aurreikusitako kasuren batean: Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legea eta Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legea.

j) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galdua ez izatea ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legezaren aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

k) Zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea.

l) Elkarteen kasuan, horiek ez egotea Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. zenbakietan aurreikusitako debeku-kausetan. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura ez etetea ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, harik eta ebazpen judizial irmoa eman, eta, horren bitartez, inskripzioa dagokion erregistroan egin ahal izan arte.

m) Berreskuratze agindu baten pean ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpkoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

Izaera juridikorik ez duten pertsona fisikoen edo juridikoen taldeetako kideek, onuraduntzat har daitezkeenak, paragrafo honetan jasotako betekizunak bete beharko dituzte.

2.– Proiektu pilotuarenak:

a) Diruz laguntzekoak diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egitea.

b) Diruz laguntzekoak diren gastuak ez daitezela eskabidea egin baino lehenago egindakoak izan.

6. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidearekin batera, oinarri honen 8. paragrafoan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.b) artikuluan ezarritakoaren babesean, prozedura hau bide elektronikotik bakarrik izapide-tuko da.

3.– Eskabidea aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eredu normalizatua erabili beharko da:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029307>

4.– Eskabidearen ondorengo izapideak elektronikoki egiteko (baita gastua justifikatzeko izapide ere), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora sartu beharko da, «Nire karpeta» atalera:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako agiriak izapide-tzeko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029307>

6.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariak, ahalordeen erregistro elektronikoa bitartez:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

7.– Laguntza-eskabidearen ereduaren oinarritzko edukia oinarri hauen eranskin gisa argitaratu da.

8.– Laguntza eskatu duen talde eragilea edo berrikuntza-taldea osatzen duten pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Pertsona juridikoen, eratzeko eskrituraren kopia bat eta estatutuen kopia bat (dagokion erregistroan sartu dela adierazten duen zigilua jarrita).

b) Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzaileak agindu honetako betekizun guztiak betetzen dituela, aurkezten dituen agiri guztiak egiazkoak direla eta 5.1 oinarrian, d) paragrafoetik m)-ra bitartekoetan, ezarritako betekizunak betetzen dituela, hori egiaztatzeko dokumentazioa duela, eta Administrazioak eskatzen duenean haren esku utziko duela adieraztekoa.

c) Erakunde eskatzaileak laguntza kuantifikatzeko aurkeztu nahi duen beste edozein dokumentazio osagarri.

Laguntzak eskatu dituzten eta izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeen kasuan, proiektu pilotuan parte hartzen duten enpresa edo erakunde bakoitzari dagokionez aurkeztu beharko da dokumentazioa.

9.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko ditu NAN, IFK, bere zerga-betebeharren ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, pertsona eskatzaileek edo onuradunek horretarako berariazko bai-mena eman beharrik izan gabe, haiek berariaz aurka egiten diotenean salbu, eta, kasu horretan,

dagokion ziurtagiria edo dokumentua aurkeztu beharko dute. Hori guztia Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluari dagokionez.

10.– Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoarekin arabera, oinarri honen 8. paragrafoan eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatzen denean eta eskatzaileak berariaz deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela aldaketarik egin, horiek aurkeztutzat joko dira.

Eskatzaileak adierazi beharko du zein Administraziotan eta noiz aurkeztu diren dokumentuok, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak elektronikoki bilduko ditu bere korporazio-sareen bidez.

Eskatzaileak ez badu nahi Administrazioak oinarri honen 8. paragrafoko dokumentazioa eskuratzerik, espresuki adierazi beharko du horren aurka dagoela, eta dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

11.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira laguntza-eskabidea eta eskatutako agiriak. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

12.– Eskabideak oinarri honetan eskatutako dokumentazioa ez badauka, osorik ez badago edo akastuna bada, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak ebazpena eman ondoren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.4 artikuluan xedatutakoa betez, interesduna legez behartuta badago eskabidea modu telematikoan aurkeztera eta modu presentzialean aurkezten badu, betebeharrak hori bete gabe utzita, eskatuko zaio hori zuzentzeko eta eskabidea legez ezarritako bide elektronikotik aurkezteko. Errekerimendu hori betetzen ez badu, aurkezpen presentziak ez du izango ez baliorik ez eraginik. Elektronikoki aurkezteko jarritako epea da eskabidea aurkezteko epea.

Ondorio horietarako, eskabidearen aurkezpen elektronikoa –zuzentzearen ondorioz eginikoa– oinarri honetan ezarritako epetik kanpo egiten bada, eskabide hori ez aurkeztutzat joko da.

13.– Edonola ere, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak, eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko, beharrezkotzat jotzen dituen bestelako argibide edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

14.– Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7. oinarria.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak izango du deialdi honetan araututako laguntzak kudeatzeko eskumena.

2.– Balorazio-batzorde bat sortuko da II., III., IV., V., VI., VII. eta VIII. kapituluetakoko laguntza-lerroetakoa proiektuak ebaluatzeko eta baloratzeko, bai eta balorazio-irizpide objektiboak aplikatzeko eta haztatze ere.

3.– Balorazio-batzordea Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzako hiru pertsonak osatuko dute. Horietako bat ikerketa-programen arduraduna izango da, eta batzordeko lehendakari gisa jardungo du. Beste biak, berriz, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari atxikitako zuzendaritzetako teknikarien artean aukeratuko dira, eta Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko. Ebazpen horretan, idazkaria zein izango den adieraziko da.

Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Batzordea eratu baino lehen.

Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, arloko aditu diren pertsoneri eskatu ahal izango die hala bileretan parte hartzeko nola aholkularitza emateko, beharrezko irizten dionean.

4.– Balorazio-batzordearen egitekoak hauek izango dira:

a) Aurkeztutako eskabide guztiak aztertzea, eta aplikatzekoa den araudia betetzen ez dutenak baztertzea. Era berean, araudia betetzen ez duen eskabide bakoitza baztertzeko arrazoiak zerrendatuko ditu.

b) Aplikatu beharreko araudia betetzen duten eskabideak ebaluatzea. Ebaluazioaren barruan, proiektuak balioetsiko ditu, eta balioetsiko du zenbateraino betetzen dituen bakoitzak agindu honek finkatzen dituen irizpide objektiboak.

c) Balioesteko eta kuantifikatzeko finkatzen dituen irizpide objektiboetan oinarrituz, onuradun bakoitzari zenbateko laguntza eman proposatzea.

5.– Balorazio-batzordeak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari. Proposamenak agindu honen 9. oinarrian aipatzen den edukia jaso beharko du gutxienez.

6.– Balorazio-batzordeak nahi dituen funtzionamendu-arauak ezarri ahalko ditu, eta horietan xedatzen ez den guztian Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituko diote.

8. oinarria.– Laguntzak esleitzeko eta kuantifikatzeko prozedura.

1.– Lehiaketa bidez esleituko dira agindu honen II., III., IV., V., VI., VII., eta VIII. kapituluek arautzen dituzten laguntza-lerro bakoitzeko laguntzak.

2.– Aipatu kapituluek arautzen duten laguntza-lerro bakoitzaren barruan, proiektu bakoitzari ematen zaion laguntzaren hasierako zenbatekoa kalkulatzeko, aurkezten diren proiektuak konparatuko dira, eta aginduak finkatzen dituen hautaketa-irizpide objektiboak eta balioespena aplikatuko zaizkie. Ondoren, laguntza-lerro bakoitzeko aurkeztutako proiektuen zerrenda egingo da, proiektuak puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera ordenatuta. Ordena horretan esleituko dira laguntzak, deialdi honen 26., 33., 40., 47., 54. eta 61. oinarriek finkatzen dituzten ehunekoak aplikatuta, funts guztiak agortu arte.

Funtsak mugatuak direla kontuan izanik, lerro bakoitzeko azken laguntzari dagokionez, proposatutako kopurua diru kopuru erabilgarria baino handiagoa bada, esleituko den laguntza diru kopuru erabilgarri hori izango da, baldin eta kopuru hori diruz lagundu daitekeen gastuaren % 70ekoa edo handiagoa bada. Diru kopuru erabilgarri hori diruz lagundu daitekeen gastuaren % 70 baino gutxiago bada, ez da laguntza esleituko, eta kopuru horrek 1. oinarrian jasotako beste lerro batera zuzendutako funtsak handituko ditu, honako hurrenkera honetan: II., III., V., VII., VI. eta IV. kapituluak, harik eta guztiz agortzen diren arte.

9. oinarria.– Ebazpena.

1.– Aurkeztutako eskabideak eta dokumentuak aztertu ondoren, balorazio-batzordeak egin duen proposamena ikusirik, 7. oinarrian xedatutakoaren arabera Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak ebatziko du eskatutako laguntzak eman ala ez, ebazpen bakar baten bitartez.

2.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

A) Aintzat hartutako eskabideei dagokienez:

1.– Onuradunen izena edo izen soziala, eta IFK edo NAN.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatzen den zenbatekoa.

3.– Aplikatutako irizpide objektiboak eta laguntzaren ehunekoa.

4.– Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren kontura finantzatutako diruz lagundutako zenbatekoa, funts horren kontura finantzatzen den zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea eratzen duen urriaren 3ko 194/2006 Dekretuaren arabera eman eta ordainduko dela adierazita.

5.– Proiektuak gauzatzeko epearen bukaera-data.

6.– Basogintza-sektoreko lankidetzarako laguntzetarako eta landa-eremuetako nekazaritzakoak ez diren garapen-proiektuetarako, laguntzaren minimis-izaera adieraztea eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduari, Batzordearen, 2013ko abenduaren 18koaren, aipamen zehatza egitea (2013ko abenduaren 24ko EBAO, 352. zenbakia).

7.– Izaerarik gabeko pertsona fisikoen edo juridikoen taldeek berariaz adierazi beharko dituzte taldeko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntza zenbatekoa.

B) Aintzat hartu ez diren eskabideei dagokienez:

1.– Eskabidea aurkezten duen pertsonaren edo sozietatearen izena, IFK edo NAN zenbakia.

2.– Laguntza ukatzeko arrazoiak.

3.– Zehapen-prozeduraren batean edo dirulaguntzen itzultze-prozeduraren batean egonez gero, hura amaituta izan beharko da dirulaguntza eman ahal izateko. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaitasuna badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, baldintzapean emandako laguntza baliogabetu egingo da, onuradun izateko debekua ezartzen duen egoera batean egoteagatik.

4.– Agindu hau indarrean sartu eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena.

Lehia-konkurrentziako prozeduraren ebazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua 1. zenbakiko b) letran xedatutakoaren arabera, EHAA-n argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da. Dena dela, ebazpen osoa helaraziko zaie interesdun guztiei, eta, gainera, ebazpenean interesdun bakoitzari berariaz eragiten dioten alderdiak identifikatuko dira.

Edonola ere, lehenik egiten den jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

5.– Agindu hau indarrean sartu eta sei hilabete igarota, ebazpen espresurik ez badago, eskabidea ukatu egin zaiela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.– Prozeduraren ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio interesdunak Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera, edo, hiru hilabeteko epean administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

7.– Jakinarazpen elektronikoak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa-ren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

10. oinarria.– Pertsona onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzen onuradunek oinarri honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte, zeinek xedapen hauetako baldintzak jasotzen baitituzte: Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluko baldintzak, 2015-2020 Euskadiko Landa Garapenerako Programan aurreikusitako laguntzen araudi-esparrua ezartzen duen otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren 15. artikuluan aurreikusitakoak eta hainbat laguntzen baldintza espezifikoak. Hona hemen:

a) Laguntzak ematen dituen ebazpenean edo, hala badagokio, luzapen-ebazpenean ezarritako epean gauzatzea laguntzaren helburu den jarduera, betiere deialdi honen 11. oinarrian ezarritako gehieneko muga aintzat hartuta.

b) Dirulaguntza eman den helbururako erabiltzea; beraz, proiektu pilotu bat burutu behar da.

c) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunak berariaz uko egiten ez badio, dirulaguntza onartutzat emango da.

d) Ebazpen-proposamena eman baino lehen, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

e) Proiektuen emaitzak hedatzeko betebeharrari dagokionez: laguntzaren kopuru osoa jaso eta gehienez ere bi hilabeteko epean argitaratuko dira emaitzak. Proiektuaren emaitzak operazioaren deskribapen labur bat eginez hedatuko dira; buruaren erabilera profesionalerako web-orrian, ahal dela, edo, hala badagokio, taldeko kideetako baten web-orrian.

f) Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinaraztea jarduera edo proiektua partez edo osorik gauzatu dela eta haren esku jartzea hala egin dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.

g) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Europar Batasuneko kontrol-organoei jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia eman beharko zaie.

h) Deialdi honen 5. oinarriko 4. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, baldin eta beste administrazio batek edo erakunde publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen duen beste

dirulaguntza edo laguntzarik eskatu eta eskuratzen bada, horren berri ematea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz, beste laguntza edo dirulaguntza eskuratu izanaren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan eta, betiere, funts publikoen erabilera justifikatu aurretik.

i) Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri eman behar diote Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz.

j) Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) 50. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

k) Diruz laguntzen diren gastu eta jarduera guztietan eta haiei buruz argitaratzen diren informazio eta iragarki guztietan agerian jartzea erkidego-funtsek eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituztela laguntzok, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuarekin eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, abenduaren 17koa aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen 808/2014 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren, Batzordearenaren, uztailaren 17koaren, III. eranskinarekin bat, agindu honen II. eranskinean adierazten den eran.

l) Merkataritza-legeriak eskatutako baldintzetan izatea ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak, eta deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako gastu guztietarako kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat mantentzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

m) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, zeren eta egiaztapenak eta kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

n) Minimis laguntzen araubidera bildutako basogintza-sektoreko lankidetzarako laguntzei eta nekazaritzakoak ez diren landa-eremuetako garapen-proiektuei dagokienez, adieraztea minimis laguntzei buruzko 1407/2013 (EB) Erregelamenduari, Batzordearenari, abenduaren 18koari, lotutako laguntzarik jaso den uneko zerga-ekitaldian edo aurreko bietan. Informazio hori laguntza-eskabi-dean jasoko da, eta laguntza ematen duen erakundea eta zenbatekoa adieraziko dira.

2.– Foru-ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dauden, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatutako du, automatikoki. Hala ere, eska-tzaileak modu arrazoituan aurka egin ahal izango dio horri eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen zaion agiria aurkeztu beharko du, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

11. oinarria.– Gauzatzeko gehieneko epeak.

1.– Agindu honetan bildutako laguntzei dagozkien gastuak urtean edo hainbat urtetan betearazi ahal izango dira. 2022ko aurrekontu-ekitaldian hasi behar dira diruz laguntzekoak diren ekintzak.

2.– Urtebete irauten duten proiektuak gauzatzeko epea 2022ko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, luzatu egin ahal izango da, 15. oinarriaren 4. paragrafoan xedatuarekin bat etor-ritz, eta luzatutako proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da, beranduenez.

3.– Hainbat urtetarako proiektuak gauzatzeko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, luzatu egin ahal izango da, 15. oinarriaren 4. paragrafoan xedatuarekin bat etor-ritz, eta luzatutako proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2024ko abenduaren 31n amaituko da, beranduenez.

12. oinarria.– Gastua justifikatzea.

1.– Emandako laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela justifikatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzan, dirulaguntza emateko ebazpenari erantsitako jarraibideetan jasotako xehetasunekin:

a) Jarduketak justifikatzeko txosten bat, proiektuaren gauzatzeari eta gauzatze-mailari buruzko informazioa jasotzen duena, eta haren amaierako emaitzak.

b) Langile-gastuak, honako hauen bidez justifikatuko dira: ordainsariak, horiek ordaindu izanaren agiriak, Langile Zerrenda Izenduna (LZI), aurreko ekitaldiari dagozkion Kotizazioen Likidazioaren Ordainagiriak (KLO) eta Kotizazioen Likidazioaren Ordainagirien ordainketak eta hitzartutako lanordu kopurua adierazten duen agiria. Lehen sektoreko eragileen kasuan, 18,30 eurotan ezarri da orduko kostua, eta proiektura bideratutako ordu kopuruaren ziurtagiria erantzukizunpeko adierazpen bidez egingo da.

c) Fakturak eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuak, baliozkoak direnak merkataritzako trafiko juridikoan, edo administrazio-efikazia dutenak. Egiaztagiriak zigilu batekin markatuko dira, eta laguntza honetara aurkeztu izana eta egiaztagiriari egotzitako dirulaguntzaren ehunekoa adieraziko dira. Gainera:

– 100.000 euro edo 100.000 euro arteko dirulaguntzetan, egindako gastuak justifikatzeko erantzukizun-adierazpen bat aurkeztuko da, non taula xehatu bat jasoko baita fakturei eta egin diren ordainketei buruzko datuekin, adibidez: fakturazioaren eta ordainketaren erreferentziak eta datak, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatutako zergak.

– 100.001 euro edo 100.001 eurotik gorako dirulaguntzetan, Proiektuaren kostuen auditorerantz-txostena eta gainerako beharrezko dokumentazioa; Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean (KAEO) inskribatuta dauden auditoreek egin behar dute txostena, maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduari jarraikiz (2007ko maiatzaren 25eko BOE, 125. zk.). Txosten hori bakarra izango da proiektu osorako, eta bertan parte-hartzaile bakoitzari buruzko informazioa jasoko da. Txostena talde operatiboak edo berrikuntza-taldeak izendatutako ordezkariak aurkeztuko du laguntza emateko ebazpenarekin batera, entitate onuradun bakoitzari bidaliko zaizkion jarraibideei jarraituz. Kontu-ikuskapenaren kostutik, gehienez 1.500 euro lagundu daitezke diruz, proiektu bakoitzeko.

d) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztagiriak ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, hartarako aurkeztu badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztagiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz.

e) Dirulaguntzak itzultzeagatik dagozkion betebeharrak ordaindu dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

f) II. kapituluko proiektuei dagokienez, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak emandako eredia, behar bezala beteta, proiektuaren datuak Europako Berrikuntza Agentziara (EIP Agri) igortzeko.

2.– Foru-ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dauden, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatuko du, automatikoki. Hala ere, eskatzaileak berriaz uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen zaion agiria aurkeztu beharko du, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Laguntzak modu egokian kudeatu eta ordaintzen direla bermatzeko, egindako gastua egiaztatzen duten agiriak aurkezteko epea, gehienez, 2023ko martxoaren 31ra artekoa izango da urtebeteko proiektuetarako, eta 2024ko martxoaren 31ra artekoa hainbat urtetarako proiektuetarako.

Luzapena emango balitz, emandako luzapena bukatu eta hurrengo hilabeteko azken eguna izango da egindako gastua justifikatzeko dokumentuak aurkezteko azken eguna.

4.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dokumentu gehiago eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo. Eskabide horrek arrazoitua izan beharko du.

13. oinarria.– Ordainketa.

1.– Ordainketa egiteko, aurretik eskatu eta gastua justifikatu beharra dago, aurreko oinarrian adierazitako agiriak aurkeztuz.

2.– Ez da ordainduko laguntzaren aurrerakinik.

3.– Urte bakoitzean, ordainketak kontura egin daitezke, proiektuak gauzatzeko erritmoaren arabera. Horretarako, interesdunek eskatu egin behar dute aurretik. Gehienez ere, konturako ordainketa bat egingo da urte bakoitzeko. Konturako ordainketa egiteko eskabidearekin batera, 12. oinarriaren 1. paragrafoan aipatzen diren agiriak aurkeztuko dira. Proiektuak hainbat urtetan gauzatzekoak badira, ekitaldi bakoitzean egingo da urte bakoitzean egindako inbertsioen edo gastuen ordainketa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen alorrean indarrean dauden eta maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioei eta partzuergoei aplikatu dakiekeen aurrekontu-araubidea arautzen duten legezko xedapenen testu bateginaren 111.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Ordainketa egiteko eskabidearekin batera, 12. oinarriaren 1. paragrafoan aipatzen diren agiriak aurkeztuko dira. Dokumentazio hori osatuta dagoenean, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendariak egin beharreko izapideak egingo ditu, Ekonomia eta Ogasun Sailak ordainketa egin dezan.

5.– Inbertsioak ez badira ezarritako gehieneko epeetan egiten, ezta epeen luzapenean ere, edo inbertsioa egin izana egiaztatzeko agiriak ez badira epean aurkezten, onuradunek dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko dute, eta, hala dagokionean, agindu honen 17. oinarrian aurreikusitako itzulera-prozedura jarriko da abian.

6.– Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeei (talde eragileak edo berrikuntza-taldeak) dagokienez, talde eragileak edo berrikuntza-taldeak funtsen hartzaile izateko izendatu duen kideari egingo zaio ordainketa, eta hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean.

7.– Dirulaguntzak ordaintzeko, amaitu egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoak emandako antzeko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozedurak, artean izapideetan daudenak. Prozeduraren ondorioz laguntza publikoak jasotzeko desgaitasuna edo itzultzeko betebeharra ezarriko balitz, baldintzapean emandako laguntza indargabetu egingo da, onuradun izateko debekua dakarten egoeretako batean egoteagatik, eta laguntza ez da inolaz ere ordainduko.

8.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean jasota egon beharko du. Alta eman edo hirugarren interesduneko datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenengoentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

14. oinarria.– Azpikontratazioa.

1.– Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikulua eta uztailaren 21eko 887/2016 Errege Dekretuaren 68. artikulua aplikatuz, diruz lagundutako jardueraren gauzatzea onuradun ez diren hirugarrenei azpikontratatu ahal izango die onuradunak. Proiektua gauzatzeko azpikontratua diruz lagunduko den jardueraren % 60koa izan daiteke gehienez.

2.– Baldin eta hirugarrenei azpikontratutako jardueraren zenbatekoak dirulaguntzaren zenbatekoa % 20 gainditzen badu, dirulaguntza 60.000 eurotik gorakoa izanik, idatzizko kontratua egin beharko da, zeina Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak baimendu beharko baitu kontratua formalizatu aurretik eta eskabidea aurkeztu ondoren.

Kontratua formalizatzeko baimen-eskabidea laguntza-eskabidearekin batera aurkeztuko da, eta onartze- edo ukatze-ebazpena, aldiz, aurkezten den egunetik bi hileko epean emango eta jakinaraziko da; epe hori igarota, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea onartu dela ulertu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozedurako ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari. Horretarako hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo hiru hilekoa, administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera.

3.– Kontratua ezin izango da zatikatu kontratuaren zenbatekoa murriztu eta 2. paragrafoko betekizunak bete beharrik ez izateko helburuz.

4.– Kontrataste onuradunarekiko besterik ez dute betebeharrik, eta onuradunak dauka diruz lagundutako jarduera ondo gauzatzeko erantzukizun osoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren aurrean.

5.– Aurreko paragrafoan jasotakoa betetzeko, onuradunen erantzukizuna da diruz lagunduko den jarduera itundua gauzatzean agindu honetan ezarritako mugak errespetatzen direla zaintzea, diruz lagundutako gastuen izaera eta zenbatekoari dagokionez, eta kontrataste, aldiz, agindu honen 10. oinarriaren 6. paragrafoan adierazitako lankidetzeta-betebeharra bete behar dute, eta muga horiek benetan errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatze aukera eman.

6.– Alabaina, onuradunak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren gauzatze osoa edo partziala honako hauekin itundu:

- a) 5. oinarrian ezarritako baldintza orokorrak betetzen ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.
- b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.
- c) Bitartekari edo aholkulariekin, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu totalaren ehuneko jakin gisa zehazten badira; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunarekin loturaren bat duten pertsona fisiko edo juridikoak, hauek gertatzen direnean izan ezik:

- 1.– Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egin izana.

2.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren aldez aurretiko baimena lortu izana.

e) Deialdi eta programa berean laguntza eskatu duten, baina baldintzak betetzen ez dituztelako edo beharrezkoa den balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsona fisiko edo juridikoak.

15. oinarria.– Dirulaguntzak emateko baldintzak bat etortzea eta aldatzea eta inbertsioa egiteko epeak luzatzea.

1.– Beste erakunde publiko nahiz pribatu batetik beste laguntza edo dirulaguntzaren bat jasoz gero, idatziz justifikatu eta jakinarazi beharko zaio Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, eta, horren ondorioz, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, agindu honetan ezarritako gutxieneko betekizunak eta laguntza ematea eragin zuen helburua gorde beharko dira. Horretarako, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dagokion ebazpena aldatzeko ebazpena emango du, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berrira egokitzeko, eta, dagokionean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak arautzen duen itzul-keta-prozedura hasiko du.

2.– Aurkeztu eta dirulaguntza eman zaion proiektuan egiten dituen aldaketak idatziz jakinarazi eta behar bezala justifikatu beharko ditu onuradunak, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren aurrean.

Aurkeztu eta dirulaguntza eman zaion proiektuan aldaketa funtsezkoak egiten badira, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak ebazpena emango du, aldaketa onartuz edo ezeztatuz. Aldaketa onartuz gero, ebazpen horretan bertan, laguntza emateko jatorrizko ebazpena aldatuko da, baldin eta edukiren bat aldatu bada.

Funtsezko aldaketatzat jotzen dira:

- a) Aldaketa esanguratsuak egitea edo proiektuan hasieran ezarritako helbururen bat ezabatzea.
- b) Proiektua gauzatzeko egutegia aldatzea.
- c) Proiektua gauzatzeko ezarritako faseren bat deuseztatzea.
- d) Gastu-kontzeptuak aldatzea, hasieran onartutako gastuez gain beste batzuk ere sartuz.
- e) Proiektuko parte-hartzailereren baten ordeztuak beste baten bat jartzea –ezarritako eskakizun eta betebeharrak guztiak bete beharko ditu–, edo parte-hartzailereren bat kentzea.

Aldaketak direla-eta ez da inoiz emandako laguntza handituko.

Aldaketak ez badira funtsezkoak, ez dute laguntza emateko ebazpena aldatuko, oinarri honetako 3. paragrafoan aurreikusitakoa gertatzeari kalterik egin gabe.

3.– Baldin eta proiektuaren behin betiko benetako kostua txikiagoa bada onartutako eta dirulaguntza emateko erreferentziatzat hartutako aurrekontua baino, eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren likidazio-ebazpen baten bidez, eta, gero, oinarri berriari aplikatuko zaio dirulaguntzaren ehunekoa.

4.– Onuradunak aldez aurretik eskatu eta idatziz justifikatzen badu laguntza eskatzen dueneko proiektua ezin dela gauzatu ebazpenean ezarritako epean berehalakoan proiektua gauzatea eragozten duten berandutze, atzerapen edo zailtasunak gertatu direla-eta –laguntza emateko ebazpenaren arabera proiektua bukatu behar den eguna baino lehenago aurkeztu beharko luke

eskabidea—, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak proiektua gauzatzeko epea luzatu ahalko du, ebazpen bidez, non zehaztuko baita luzapenaren gehieneko iraupena, hasieran onartutako dirulaguntzari eutsita. Proiektua gauzatzeko gehieneko epea inola ere ez da izango agindu honen 11. oinarriak xedatzen duena baino luzeagoa.

16. oinarria.— Atzera egitea eta uko egitea.

1.— Eskatzaileek atzera egin ahalko dute, betiere laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, atzera egiteko eskabidea helarazi beharko diote Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskabidea, eta amaitutzat emango du prozedura.

2.— Onuradunek laguntzei uko egin ahal izango diete, laguntza onartu ondoren ere —agindu honen 10. oinarriaren 3. paragrafoan ezarritako betebeharrarekin bat etorriz, emandako laguntza onartzeko betebeharra dute onuradunek—, baina, betiere, inbertsioa amaitu aurretik, eta baldin eta Administrazioak inolako ordainketarik egin ez badu. Horretarako, emandako laguntzei uko egiteko eskabidea helarazi beharko diote Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartu eskaera eta amaitutzat emango du haiei dagokien prozedura.

Ukoa onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

17. oinarria.— Ez-betetzeak.

1.— Baldin eta onuradunek ez badute betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntza emateko ebazpenak finkatzen duen baldintzaren bat, proiektua ez badute osorik gauzatzen eta horren ondorioz erabat hutsaltzen badute laguntzaren helburua edo dirulaguntzak itzultzera behartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean badaude, laguntzak ematen dituen organo eskudunak, baldintzak ez betetzeagatiko espedientea izapidetu eta interesduna entzun eta gero, ebazpen baten bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio onuradunari, partez edo osorik, eta, hala dagokionean, kobratu dituen laguntzak eta dagozkion legezko interesak itzuli beharko dizkio onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, partzialki edo osorik, proiektuaren gauzatze-mailaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.2 artikuluan xedatuarekin bat. Gainera, dagozkion gainerako neurriak hartuko dira.

Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondore guztietarako.

2.— Itzulketa-prozedura Administrazioko arau-hauste baten ondorioa bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio, behar den zehapen-prozedurari ekin diezaion, baita interesdunari ere. Administrazioko arau-haustek izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 56., 57. eta 58. artikuluetan jasotako jokabideak.

18. oinarria.— Bateragarritasunak.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako beste edozeinekin, betiere dirulaguntza guztien baturak gainditzen ez baditu 26., 33., 40., 47., 54., eta 61. oinarriek egoera bakoitzerako ezarritako

gehieneko ehunekoak. Muga hori gaindituz gero, gaindikinari dagokion zenbatekoa kenduko zaio programa honen babespean emandako dirulaguntzari.

19. oinarria.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Elikagaien kalitate eta industriaren arloko laguntzak.

– Arduraduna: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

– Xedea: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren laguntzen, beken eta I+Garen jarraipena, kontrola eta kudeaketa.

– Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamendua arduradunari aitortzen zaizkion ahalorde publikoak egikaritzeko.

– Hartzaileak:

• Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

• Nekazaritza eta Arrantzako Estatistika Ofizialen Zerbitzua (SEAS). Erakunde ordaintzailea.

– Eskubideak: eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea duzu gure web-orrian:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001600-cap2-eu.shtml>

– Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>) (https://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/rgpd_2016R0679-es-eu.pdf).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Esku-bide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

II. KAPITULUA

NEKAZARITZA-PRODUKTIBITATEAREN ETA -IRAUNKORTASUNAREN ALORREAN EIPS BERRIKUNTZARAKO EUROPAKO ELKARTEKO TALDE OPERATIBOAK SORTZEKO ETA MARTXAN JARTZEKO LAGUNTZAK

20. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Nekazaritza-produktibitatearen eta -iraunkortasunaren alorrean Berrikuntzarako Europako Elkarteko talde operatiboak sortzeko eta martxan jartzeko laguntzak arautzea da kapitulu honen xedea.

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

- Elkarlana sustatzea aurrera egiteko, berrikuntzen bitartez, landa-ingurunearen lehiakortasunean
- Nekazaritzan ekoizpen ekologikoa sustatzea.
- Sektorearen parte-hartzea eta elkarlana sustatzea berrikuntza-proiektuetan.

21. oinarria.– Onuradunak.

Talde operatiboak izan daitezke kapitulu honek araututako laguntzen onuradun, talde operatiboztat ulertuz beren helburuak lortzeko proiektuak garatzeko asmoz EIPs-en helburuen baitan arazo zehatz bat konpontzeko edo aukera bat aprobetxatzeko hainbat pertsona fisikok zein juridikok osatutako taldea.

Talde operatibo batek ez du nortasun juridikorik, eta, gutxienez, bi kidek osatua izan behar du –euren artean harreman organiko, funtzional edo ekonomikorik ez duten pertsona fisikoak edo juridikoak–; horietatik batek nekazaritza eta elikadura sektoreetako balio-katekoa izan behar du, kate horretan sartzen direlarik nekazariak (nekazaritza-ekoizleak) eta horien elkarteak, ikertzaileak, aholkulariak, nekazaritzako eta basoko produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko enpresak, kooperatibak, eta elkarteak.

Talde horietan parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarteen eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Nolanahi ere, izendatu behar da taldearen ordezkari edo ahaldun bat, nahiko ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion obligazioak betetzeko. Elkarteen ordezkari edo ahaldun bakarrak izenpetu eta aurkeztuko du eskabidea talde operatiboaren izenean.

22. oinarria.– Baldintza espezifikokoak.

Agindu honen 5. oinarriko baldintza orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

1.– Proiektuak berritzaileak izan daitezela, berritzaile izateari buruz 3. oinarriko 11. paragrafoan jasotako definizioaren arabera.

2.– Proiektuek dokumentu eragile bat izan dezatela, 30 orrialdekoa gehienez, honako hauek jasoko dituen:

a) Proiektu berritzailearen deskribapen xehatua; alderdi ekonomiko eta tekniko guztiak azaldu behar dira, bai eta taldeko kide bakoitzak egingo duen diruz laguntzeko moduko gastu mota bakoitzari dagozkion kostu zehatzak ere.

b) Aurreikusitako emaitzen deskribapena, bai eta produktibitatea eta baliabideen kudeaketa iraunkorra sustatzeko helburua –Berrikuntzarako Europako Elkarteen helburua– lortzen laguntzeko ekarpenarena ere.

c) Talde eragileko kideen zerrenda eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.

d) Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.

e) Talde eragileko kide bat izendatzea funtsen hartzaile; horrek banatuko ditu funtsok talde eragileko gainerako kideen artean.

f) Parte-hartzaile guztien izenpeak.

23. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

Agindu honen 6. oinarriaren arabera eskatzen den dokumentazioaz gain, eskakizunarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

1.– Agindu honen 22. oinarriaren 2. paragrafoan aipatzen den dokumentu eragilearen kopia.

2.– Baterako erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek adieraziko dituen:

- a) Aurkezten den proiektuaren jarduerak berriak direla.
- b) Proiektuaren emaitza zabaltzeko konpromisoa hartzen duela, Berrikuntzarako Europako Elkarleen sarearen bidez.

24. oinarria.– Kostu diruz lagungarriak eta diruz lagundu ezin direnak.

1.– Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egitearen kostuak;
- b) proiektu bat bideragarri egiteko dagokion eremuan egindako dinamizazio-, sustapen- eta animazio-jardueren kostuak;
- c) lankidetzeta-jardueren funtzionamendu-gastuak;
- d) proiektu pilotuak egiteko beharrezko diren gastuak;
- e) komunikazio- eta hedapen-jardueren kostuak;
- f) langileen kostuak;
- g) zeharkako kostuak (langileen kostuen % 15).

2.– Aurreko paragrafoan zehazten diren kostu diruz lagungarriei dagokienez, hauek izango dira gastuen egozpena eta horren mugak:

- a) Langile-gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- b) Parte-hartzaile bakoitzaren gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- c) Zentro teknologiko edo ikerketa-zentro bakoitzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.
- d) Zeharkako gastuak pertsonaleko gastu zuzenen % 15 izango dira.
- e) Ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzeko edo amortizatzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

3.– Kostu/gastu diruz lagungarriaren zenbatekoak 5.000 euro gainditzen duenean, eskatzaileak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia. Aurrekontuek edo fakturek informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

- a) Bezeroaren izena.

- b) Hornitzailearen izena.
- c) Data.
- d) Kontzeptua.
- e) Aurrekontuaren edo fakturaren zenbakia.
- f) Hizkuntza hauetako batean idatzita egotea: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez.
- g) Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

Eskatzaileak aurkeztutako gastu diruz lagungarrien zenbatekoak ez du gaindituko merkatuko batez besteko balioa.

4.– Diruz laguntzekoak ez diren gastuak izango dira enpresa-planak, ingurumen-planak, basoen kudeaketa-planak edo plan baliokideak gauzatzeari lotutakoak. Halere, proiektu pilotua gauzatzeari lotutako inbertsioak finantzatu egingo dira, proiektuak dirauen bitarteko amortizazioa aplikatuz.

25. oinarria.– Proiektuak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak baloratzeko eta bakoitzari puntuazio bat emateko –proiektu bakoitzaren puntuazioaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 26. oinarriarekin bat–, balorazio-irizpide hauek eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan:

1.– Talde eragilearen helburua: 20 puntu, gehienez.

a) Talde eragilearen helburuak garbi ezartzea:

– Zehaztapen handia: 8 puntu.

– Zehaztapen ertaina: 4 puntu.

– Zehaztapen txikia: 2 puntu.

b) Helburuak Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziarekin lotuta egotea:

– Lotura handia: 8 puntu.

– Lotura ertaina: 4 puntu.

– Lotura txikia: 2 puntu.

c) Ekiten zaion gaiaren garapen-mailaren azterketa:

– Analisi-kalitate handia: 4 puntu.

– Analisi-kalitate ertaina: 2 puntu.

– Analisi-kalitate txikia: 1 puntu.

2.– Talde eragilearen osaera: 15 puntu, gehienez.

a) Talde eragilea osatzen duten eragileen egokitasuna justifikatzea:

– Taldekideen % 75-% 100 egokiak: 6 puntu.

– Taldekideen % 50-% 74 egokiak: 4 puntu.

– Taldekideen % 40-% 49 egokiak: puntu 2.

– Taldekide egokiak < % 40: 0 puntu.

b) Beste talde eragile batzuekiko lankidetzak:

– Badago lankidetzak: puntu 1.

– Ez dago lankidetzarik: 0 puntu.

c) Diziplina anitzeko lankidetzak:

– Aniztasun-maila handia taldekideen profiletan: 5 puntu.

– Aniztasun-maila ertaina taldekideen profiletan: 3 puntu.

– Aniztasun-maila txikia taldekideen profiletan: 0 puntu.

d) Talde eragilekoak ez diren eragileengana hurbiltzeko gaitasuna:

– Ikusten da inpaktua kanpoko eragileengana iristen dela: puntu 2.

– Ez da ikusten inpaktua kanpoko eragileengana iristen denik: 0 puntu.

e) Ezagutza-trukeen kantitatea eta kalitatea, eta interakzioak sortzea:

– Maila altua: puntu 1.

– Maila baxua: 0 puntu.

3.– Berrikuntza-eragilearekin elkarlanean aritzea: 15 puntu, gehienez.

– Badago parte-hartzea: 15 puntu.

– Ez dago parte-hartzerik: 0 puntu.

4.– Nekazaritzako elikagaien EAEko zentro teknologiko edo ikerketa-zentro batean parte hartzea: 15 puntu, gehienez. Nekazaritzako elikagaien EAEko zentro teknologiko edo ikerketa-zentroetako proiekturen batean aktiboki parte hartzea.

– Badago parte-hartzea: 15 puntu.

– Ez dago parte-hartzerik: 0 puntu.

5.– Proiektuaren ezaugarriak: 35 puntu, gehienez.

a) Proiektuak duen inpaktua produktibitateari eta jasangarritasunari (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) dagokienez:

– Ekarpen handia: 7 puntu.

– Ekarpen ertaina: 4 puntu.

– Ekarpen txikia: 2 puntu.

b) Emaidza praktikoek azken erabiltzaileentzat duten garrantzia:

- Garrantzi handia: 8 puntu.
- Garrantzi ertaina: 4 puntu.
- Garrantzi txikia: 2 puntu.

c) Proiektuaren berrikuntza-potentziala:

- Berrikuntza-maila altua: 8 puntu.
- Berrikuntza-maila ertaina: 4 puntu.
- Berrikuntza-maila baxua: 2 puntu.

d) Ezarpen-plana: espero diren mugarriak eta emaitzak:

- Egokitasun handia: 3 puntu.
- Egokitasun ertaina: puntu 1.
- Egokitasun txikia: 0 puntu.

e) Komunikazio- eta hedapen-plana:

- Egokitasun handia: 3 puntu.
- Egokitasun ertaina: puntu 1.
- Egokitasun txikia: 0 puntu.

f) Jarduera-adierazleak: jarraipena eta kontrola:

- Egokitasun handia: 3 puntu.
- Egokitasun ertaina: puntu 1.
- Egokitasun txikia: 0 puntu.

g) Proiektuaren bideragarritasunaren azalpena eta horren hedapena:

- Justifikazio-maila altua: 3 puntu.
- Justifikazio-maila ertaina: puntu 1.
- Justifikazio-maila baxua: puntu 1.

26. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Kostu diruz lagungarriaren % 80 izango da laguntzaren gehieneko portzentajea, portzentaje horrentzako % 80 izanik Europak lagundutako finantzaketa-tasa.

2.– Proiektu bakoitzari gehienez ere 100 puntu eman ahal izango zaizkio, eta hautaketa-irizpide bakoitzari 25. oinarrian ezarritako haztapena aplikatuko zaio. Laguntza lortzeko, 40 puntu izan behar dira gutxienez.

Aurreko oinarrian xedatutakoarekin bat, proiektu bakoitzak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lortzen duen puntu-kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

a) Kostu diruz lagungarrien % 80 emango zaie gehienezko puntuazioa lortzen duten proiektuei.

b) Kostu diruz lagungarrien % 70 emango zaie 1-12 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

c) Kostu diruz lagungarrien % 60 emango zaie 13-18 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

d) Kostu diruz lagungarrien % 50 emango zaie 19-24 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

e) Kostu diruz lagungarrien % 40 emango zaie 25-30 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

f) Kostu diruz lagungarrien % 30 emango zaie 31-36 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

g) Kostu diruz lagungarrien % 25 emango zaie 37-42 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

h) Kostu diruz lagungarrien % 20 emango zaie 43-48 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

i) Kostu diruz lagungarrien % 15 emango zaie 49-54 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

j) Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 10 emango zaie 55-60 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

3.– Puntuazio berdina lortzen dutenen artean, lehentasuna emango zaio «proiektuaren ezau-garriak» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari. Halere, berdinketa egoten jarraitzen badu, lehentasuna emango zaio «berrikuntza-taldearen helburua» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari.

III. KAPITULUA

PRODUKTU, PRAKTIKA, PROZESU ETA TEKNOLOGIA BERRIAK GARATZEKO LAGUNTZAK

27. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Kapitulu honen xedea da nekazaritza-, elikagai- eta baso-sektoreetan produktu, praktika, prozesu eta teknologia berriak garatzeko laguntzak –lankidetzaplanteamenduetatik sortutakoak– arautzea.

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

- Elkarlanasustatzea aurrera egiteko, berrikuntzen bitartez, landa-ingurunearen lehiakortasunean.
- Sektoreren parte-hartzea eta elkarlana sustatzea berrikuntza-proiektuetan.

28. oinarria.– Onuradunak.

Kapitulu honetan arautzen diren laguntzen onuradun izan daitezke berrikuntza-talde bat osatu eta lankidetzaplanteamenduak aurkezten dituzten entitateak, pertsona fisikoak zein juridikoak.

Jarduera berriak edo asko hobetutako jarduerak ezarriz arazo zehatz bat konpontzeko edo jakineko aukera bat aprobetxatzeko hainbat pertsona fisikok zein juridikok osatutako taldea da berrikuntza-talde bat.

Pertsona fisikoek zein juridikoek osatutako talde horiek ez dute nortasun juridikorik, eta, gutxienez, bi kidek osatuak izan behar dute –euren artean harreman organiko, funtzional edo ekonomikorik ez duten pertsona fisikoak edo juridikoak–; horietatik, batek nekazaritza eta elikadura sektoreetako balio-katekoa izan behar du, kate horretan sartzen direlarik nekazariak (nekazaritza-ekoizleak) eta horien elkarteak, ikertzaileak, aholkulariak, nekazaritzako eta basoko produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko enpresak, kooperatibak, eta elkarteak.

Talde horietan parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarteen eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Nolanahi ere, izendatu behar da taldearen ordezkari edo ahaldun bat, nahiko ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion obligazioak betetzeko. Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarrak izenpetu eta aurkeztuko du eskabidea berrikuntza-taldearen izenean.

29. oinarria.– Baldintza espezifikokoak.

Agindu honen 5. oinarriko baldintza orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

1.– Proiektuak berritzaileak izan daitezela, berritzaile izateari buruz 3.11 oinarrian jasotako definizioaren arabera.

2.– Nekazaritza-, elikadura- eta baso-sektoreetan produktu, praktika, prozesu eta teknologia berriak garatzera bideratuak izan daitezela proiektuak.

3.– Proiektuek dokumentu eragile bat izan dezatela, 30 orrialdekoa gehienez, honako hauek jasoko dituen:

a) Proiektu berritzailearen deskribapen xehatua; alderdi ekonomiko eta tekniko guztiak azaldu behar dira, bai eta taldeko kide bakoitzak egingo duen diruz laguntzeko moduko gastu mota bakoitzari dagozkion kostu zehatzak ere.

b) aurreikusitako emaitzen deskribapena.

c) Berrikuntza-taldeko kideen zerrenda, eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.

d) Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.

e) Berrikuntza-taldeko kide bat funtsen hartzaile izendatzea; horrek banatuko ditu funtsok berrikuntza-taldeko gainerako kideen artean.

f) Parte-hartzaile guztien izenpeak.

30. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

Agindu honen 6. oinarriaren arabera eskatzen den dokumentazioaz gain, eskakizunarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

1.– Agindu honen 29. oinarriaren 3. paragrafoan aipatzen den dokumentu eragilearen kopia.

2.– Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztu den proiektuaren jarduerak berriak direla adierazten duena.

31. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak eta diruz lagundu ezin direnak.

1.– Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egitearen kostuak;
- b) proiektu bat bideragarri egiteko dagokion eremuan egindako dinamizazio-, sustapen- eta animazio-jardueren kostuak;
- c) lankidetzajardueren funtzionamendu-gastuak;
- d) proiektu pilotuak egiteko beharrezko diren gastuak;
- e) komunikazio- eta hedapen-jardueren kostuak;
- f) langileen kostuak;
- g) zeharkako kostuak (langileen kostuen % 15).

2.– Aurreko paragrafoan zehazten diren kostu diruz lagungarriei dagokienez, hauek izango dira gastuen egozpena eta horren mugak:

- a) Langile-gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- b) Parte-hartzaile bakoitzaren gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- c) Zentro teknologiko edo ikerketa-zentro bakoitzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.
- d) Zeharkako gastuak pertsonaleko gastu zuzenen % 15 izango dira.
- e) Ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzeko edo amortizatzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

3.– Kostu/gastu diruz lagungarriaren zenbatekoak 5.000 euro gainditzen duenean, eskatzaileak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia. Aurrekontuek edo fakturek informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

- a) Bezeroaren izena.
- b) Hornitzailearen izena.
- c) Data.
- d) Kontzeptua.
- e) Aurrekontuaren edo fakturaren zenbakia.
- f) Hizkuntza hauetako batean idatzita egotea: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez.
- g) Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

Eskatzaileak aurkeztutako gastu diruz lagungarrien zenbatekoak ez du gaindituko merkatuko batez besteko balioa.

4.– Diruz laguntzekoak ez diren gastuak izango dira enpresa-planak, ingurumen-planak, basoen kudeaketa-planak edo plan baliokideak gauzatzeari lotutakoak. Halere, proiektu pilotua gauzatzeari lotutako inbertsioak finantzatu egingo dira, proiektuak dirauen bitarteko amortizazioa aplikatuz.

32. oinarria.– Proiektuak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak baloratzeko eta bakoitzari puntuazio bat emateko –proiektu bakoitzaren puntuazioaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 33. oinarriarekin bat–, balorazio-irizpide hauek eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan:

1.– Berrikuntza-taldearen helburua: 25 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldearen helburuak garbi adieraztea:

– Zehaztapen handia: 10 puntu.

– Zehaztapen ertaina: 5 puntu.

– Zehaztapen txikia: 2 puntu.

b) Helburuak Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziarekin lotuta egotea:

– Lotura handia: 10 puntu.

– Lotura ertaina: 5 puntu.

– Lotura txikia: 2 puntu.

c) Ekiten zaion gaiaren garapen-mailaren azterketa:

– Analisi-kalitate handia: 5 puntu.

– Analisi-kalitate ertaina: 3 puntu.

– Analisi-kalitate txikia: puntu 1.

2.– Berrikuntza-taldearen osaera: 15 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldea osatzen duten eragileen egokitasuna justifikatzea:

– Taldekideen % 75-% 100 egokiak: 5 puntu.

– Taldekideen % 50-% 74 egokiak: 3 puntu.

– Taldekideen % 40-% 49 egokiak: puntu 1.

– Taldekide egokiak < % 40: 0 puntu.

b) Lankidetzaren beste berrikuntza-talde batekin:

– Badago lankidetzaren: 2 puntu.

– Ez dago lankidetzarik: 0 puntu.

c) Diziplina anitzeko lankidetzak:

– Aniztasun-maila handia taldekideen profiletan: 4 puntu.

– Aniztasun-maila ertaina taldekideen profiletan: 2 puntu.

– Aniztasun-maila txikia taldekideen profiletan: puntu 1.

d) Berrikuntza-taldekoak ez diren eragileengana hurbiltzeko gaitasuna:

– Ikusten da inpaktua kanpoko eragileengana iristen dela: 2 puntu.

– Ez da ikusten inpaktua kanpoko eragileengana iristen denik: 0 puntu.

e) Ezagutza-trukeen kantitatea eta kalitatea, eta interakzioak sortzea:

– Maila altua: 2 puntu.

– Maila baxua: 0 puntu.

3.– Proiektuaren ezaugarriak: 60 puntu, gehienez.

a) Proiektuak duen inpaktua produktibitateari eta jasangarritasunari (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) dagokienez:

– Ekarpen handia: 12 puntu.

– Ekarpen ertaina: 6 puntu.

– Ekarpen txikia: 3 puntu.

b) Emaidza praktikoek azken erabiltzaileentzat duten garrantzia:

– Garrantzi handia: 16 puntu.

– Garrantzi ertaina: 8 puntu.

– Garrantzi txikia: 4 puntu.

c) Proiektuaren berrikuntza-potentziala:

– Berrikuntza-maila altua: 16 puntu.

– Berrikuntza-maila ertaina: 8 puntu.

– Berrikuntza-maila baxua: 4 puntu.

d) Ezarpen-plana: espero diren mugarriak eta emaitzak:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

e) Komunikazio- eta hedapen-plana:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

f) Jarduera-adierazleak: jarraipena eta kontrola:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

g) Proiektuaren bideragarritasunaren azalpena eta horren hedapena:

– Justifikazio-maila altua: 4 puntu.

– Justifikazio-maila ertaina: 2 puntu.

– Justifikazio-maila baxua: puntu 1.

33. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Kostu diruz lagungarriaren % 80 izango da laguntzaren gehieneko portzentajea, portzentaje horrentzako % 80 izanik Europak lagundutako finantzaketa-tasa.

2.– Proiektu bakoitzari gehienez ere 100 puntu eman ahal izango zaizkio, eta hautaketa-irizpide bakoitzari 32. oinarrian ezarritako haztapena aplikatuko zaio. Laguntza lortzeko, 40 puntu izan behar dira gutxienez. Aurreko oinarrian xedatutakoarekin bat, proiektu bakoitzak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lortzen duen puntu-kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

a) Kostu diruz lagungarrien % 80 emango zaie gehienezko puntuazioa lortzen duten proiektuei.

b) Kostu diruz lagungarrien % 70 emango zaie 1-12 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

c) Kostu diruz lagungarrien % 60 emango zaie 13-18 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

d) Kostu diruz lagungarrien % 50 emango zaie 19-24 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

e) Kostu diruz lagungarrien % 40 emango zaie 25-30 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

f) Kostu diruz lagungarrien % 30 emango zaie 31-36 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

g) Kostu diruz lagungarrien % 25 emango zaie 37-42 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

h) Kostu diruz lagungarrien % 20 emango zaie 43-48 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

i) Kostu diruz lagungarrien % 15 emango zaie 49-54 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

j) Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 10 emango zaie 55-60 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

3.– Puntuazio berdina lortzen dutenen artean, lehentasuna emango zaio «proiektuaren ezau-garriak» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari. Halere, berdinketa egoten

jarraitzen badu, lehentasuna emango zaio «berrikuntza-taldearen helburua» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari.

IV. KAPITULUA

ERAGILE TXIKIEN ARTEKO LANKIDETZARAKO LAGUNTZAK, ELKARREKIN DITUZTEN LAN-PROZESUAK ANTOLATZEKO ETA INSTALAZIOAK ETA BALIABIDEAK PARTEKATZEKO, BAITA TURISMOA GARATZEKO ETA MERKATURATZEKO ERE

34. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Kapitulu honen xedea da eragile txikien arteko lankidetzarako laguntzak arautzea, elkarrekin dituzten lan-prozesuak antolatzeke eta instalazioak eta baliabideak partekatzeko, baita landa-turismoarekin zerikusia duten turismo-zerbitzuak garatzeko edo merkaturatzeko ere, landa-eremuetako eragile txikiei lagunduz eskalako ekonomiak bilatzen, horrelako laguntzarik ez baitute bakarka aritzen direnean.

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

- Ekonomia-jardueren garapen-aukerak ikertzea eta sustatzea, landa-eremuan enplegua sortzeko
- Turismo-baliabideen garrantzia azpimarratzea.
- Euskadi markaren garapena sustatzea.

35. oinarria.– Onuradunak.

Kapitulu honetan arautzen diren laguntzen onuradun izan daitezke berrikuntza-talde bat osatu eta lankidetz-planteamenduak aurkezten dituzten entitateak, pertsona fisikoak zein juridikoak.

Jarduera berriak edo asko hobetutako jarduerak ezarriz arazo zehatz bat konpontzeko edo jakineko aukera bat aprobetxatzeko hainbat pertsona fisikok zein juridikok osatutako taldea da berrikuntza-talde bat.

Pertsona fisikoek zein juridikoek osatutako talde horiek ez dute nortasun juridikorik, eta, gutxienez, bi kidek osatuak izan behar dute, euren artean harreman organiko, funtzional edo ekonomikorik ez duten pertsona fisikoak edo juridikoak. Eragile txikiak izan behar dute, Batzordearen 2003/361 Gomendioak emandako definizioaren arabera mikroenpresak eragile txikitzat hartuz, edo laguntza eskatzeko unean jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoak, edo bien arteko konbinazioa.

Talde horietan parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarrekin eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Nolanahi ere, izendatu behar da taldearen ordezkari edo ahalduen bat, nahiko ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion obligazioak betetzeko. Elkarrekin ordezkari edo ahalduen bakarrak izenpetu eta aurkeztuko du eskabidea berrikuntza-taldearen izenean.

36. oinarria.– Baldintza espezifikoak.

Agindu honen 5. oinarriko baldintza orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

1.– Proiektuak berritzaileak izan daitezela, berritzaile izateari buruz 3.11 oinarrian jasotako definizioaren arabera.

2.– Projektuek dokumentu eragile bat izan dezatela, 30 orrialdekoa gehienez, honako hauek jasoko dituen:

a) Proiektu berritzailearen deskribapen xehatua; alderdi ekonomiko eta tekniko guztiak azaldu behar dira, bai eta taldeko kide bakoitzak egingo duen diruz laguntzeko moduko gastu mota bakoitzari dagozkion kostu zehatzak ere.

b) aurreikusitako emaitzen deskribapena.

c) Berrikuntza-taldeko kideen zerrenda, eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.

d) Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.

e) Berrikuntza-taldeko kide bat funtsen hartzaile izendatzea; horrek banatuko ditu funtsok berrikuntza-taldeko gainerako kideen artean.

f) Parte-hartzaile guztien izenpeak.

37. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

Agindu honen 6. oinarriaren arabera eskatzen den dokumentazioaz gain, eskakizunarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

1.– Agindu honen 36. oinarriaren 2. paragrafoan aipatzen den dokumentu eragilearen kopia.

2.– Erantzukizunpeko adierazpena, aurkezten den proiektuaren jarduerak berriak direla adierazten duena.

38. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak eta diruz lagundu ezin direnak.

1.– Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egitearen kostuak;

b) proiektu bat bideragarri egiteko dagokion eremuan egindako dinamizazio-, sustapen- eta animazio-jardueren kostuak;

c) lankidetzeta-jardueren funtzionamendu-gastuak;

d) proiektu pilotuak egiteko beharrezko diren gastuak;

e) komunikazio- eta hedapen-jardueren kostuak;

f) langileen kostuak;

g) zeharkako kostuak (langileen kostuen % 15).

2.– Aurreko paragrafoan zehazten diren kostu diruz lagungarriei dagokienez, hauek izango dira gastuen egozpena eta horren mugak:

a) Langile-gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.

b) Parte-hartzaile bakoitzaren gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.

c) Zentro teknologiko edo ikerketa-zentro bakoitzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

d) Zeharkako gastuak pertsonaleko gastu zuzenen % 15 izango dira.

e) Ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzeko edo amortizatzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

3.– Kostu/gastu diruz lagungarriaren zenbatekoak 5.000 euro gainditzen duenean, eskatzaileak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia. Aurrekontuek edo fakturek informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

a) Bezeroaren izena.

b) Hornitzailearen izena.

c) Data.

d) Kontzeptua.

e) Aurrekontuaren edo fakturaren zenbakia.

f) Hizkuntza hauetako batean idatzita egotea: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez.

g) Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

Eskatzaileak aurkeztutako gastu diruz lagungarrien zenbatekoak ez du gaindituko merkatuko batez besteko balioa.

4.– Diruz laguntzekoak ez diren gastuak izango dira enpresa-planak, ingurumen-planak, basoen kudeaketa-planak edo plan baliokideak gauzatzeari lotutakoak. Halere, proiektu pilotua gauzatzeari lotutako inbertsioak finantzatu egingo dira, proiektuak dirauen bitarteko amortizazioa aplikatuz.

39. oinarria.– Proiektuak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak baloratzeko eta bakoitzari puntuazio bat emateko –proiektu bakoitzaren puntuazioaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 40. oinarriarekin bat–, balorazio-irizpide hauek eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan:

1.– Berrikuntza-taldearen helburua: 25 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldearen helburuak garbi adieraztea:

– Zehaztapen handia: 10 puntu.

– Zehaztapen ertaina: 5 puntu.

– Zehaztapen txikia: 2 puntu.

b) Helburuak Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziarekin lotuta egotea:

– Lotura handia: 10 puntu.

– Lotura ertaina: 5 puntu.

– Lotura txikia: 2 puntu.

c) Ekiten zaion gaiaren garapen-mailaren azterketa:

– Analisi-kalitate handia: 5 puntu.

– Analisi-kalitate ertaina: 3 puntu.

– Analisi-kalitate txikia: puntu 1.

2.– Berrikuntza-taldearen osaera: 15 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldea osatzen duten eragileen egokitasuna justifikatzea:

– Taldekideen % 75-% 100 egokiak: 5 puntu.

– Taldekideen % 50-% 74 egokiak: 3 puntu.

– Taldekideen % 40-% 49 egokiak: puntu 1.

– Taldekide egokiak < % 40: 0 puntu.

b) Lankidetzaren beste berrikuntza-talde batekin:

– Badago lankidetzaren: 2 puntu.

– Ez dago lankidetzarik: 0 puntu.

c) Diziplina anitzeko lankidetzaren:

– Aniztasun-maila handia taldekideen profiletan: 4 puntu.

– Aniztasun-maila ertaina taldekideen profiletan: 2 puntu.

– Aniztasun-maila txikia taldekideen profiletan: puntu 1.

d) Berrikuntza-taldekoak ez diren eragileengana hurbiltzeko gaitasuna:

– Ikusten da inpaktua kanpoko eragileengana iristen dela: 2 puntu.

– Ez da ikusten inpaktua kanpoko eragileengana iristen denik: 0 puntu.

e) Ezagutza-trukeen kantitatea eta kalitatea, eta interakzioak sortzea:

– Maila altua: 2 puntu.

– Maila baxua: 0 puntu.

3.– Proiektuaren ezaugarriak: 60 puntu, gehienez.

a) Proiektuak duen inpaktua produktibitateari eta jasangarritasunari (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) dagokienez:

– Ekarpen handia: 12 puntu.

- Ekarken ertaina: 6 puntu.
- Ekarken txikia: 3 puntu.
- b) Emaidza praktikoek azken erabiltzaileentzat duten garrantzia:
 - Garrantzi handia: 16 puntu.
 - Garrantzi ertaina: 8 puntu.
 - Garrantzi txikia: 4 puntu.
- c) Proiektuaren berrikuntza-potentziala:
 - Berrikuntza-maila altua: 16 puntu.
 - Berrikuntza-maila ertaina: 8 puntu.
 - Berrikuntza-maila baxua: 4 puntu.
- d) Ezarpen-plana: espero diren mugarriak eta emaitzak:
 - Egokitasun handia: 4 puntu.
 - Egokitasun ertaina: 2 puntu.
 - Egokitasun txikia: puntu 1.
- e) Komunikazio- eta hedapen-plana:
 - Egokitasun handia: 4 puntu.
 - Egokitasun ertaina: 2 puntu.
 - Egokitasun txikia: puntu 1.
- f) Jarduera-adierazleak: jarraipena eta kontrola:
 - Egokitasun handia: 4 puntu.
 - Egokitasun ertaina: 2 puntu.
 - Egokitasun txikia: puntu 1.
- g) Proiektuaren bideragarritasunaren azalpena eta horren hedapena:
 - Justifikazio-maila altua: 4 puntu.
 - Justifikazio-maila ertaina: 2 puntu.
 - Justifikazio-maila baxua: puntu 1.

40. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Kostu diruz lagungarriaren % 80 izango da laguntzaren gehieneko portzentajea, portzentaje horrentzako % 80 izanik Europak lagundutako finantzaketa-tasa.

2.– Proiektu bakoitzari gehienez ere 100 puntu eman ahal izango zaizkio, eta hautaketa-irizpide bakoitzari 39. oinarrian ezarritako haztapena aplikatuko zaio. Laguntza lortzeko, 40 puntu izan

behar dira gutxienez. Aurreko oinarrian xedatutakoarekin bat, proiektu bakoitzak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lortzen duen puntu-kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

- a) Kostu diruz lagungarrien % 80 emango zaie gehieneko puntuazioa lortzen duten proiektuei.
- b) Kostu diruz lagungarrien % 70 emango zaie 1-12 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- c) Kostu diruz lagungarrien % 60 emango zaie 13-18 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- d) Kostu diruz lagungarrien % 50 emango zaie 19-24 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- e) Kostu diruz lagungarrien % 40 emango zaie 25-30 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- f) Kostu diruz lagungarrien % 30 emango zaie 31-36 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- g) Kostu diruz lagungarrien % 25 emango zaie 37-42 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- h) Kostu diruz lagungarrien % 20 emango zaie 43-48 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- i) Kostu diruz lagungarrien % 15 emango zaie 49-54 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- j) Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 10 emango zaie 55-60 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

3.– Puntuazio berdina lortzen dutenen artean, lehentasuna emango zaio «proiektuaren ezau-garriak» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari. Halere, berdinketa egoten jarraitzen badu, lehentasuna emango zaio «berrikuntza-taldearen helburua» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari.

V. KAPITULUA

HORNIDURA-KATEKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA HORIZONTAL ETA BERTIKALERAKO LAGUNTZAK, BANAKETA-KATE LABURRAK ETA TOKIKO MERKATUAK SORTZEKO ETA GARATZEKO, ETA, BANAKETA-KATE LABURREN ETA TOKIKO MERKATUEN GARAPENARI LOTUTA, PRODUKTUAK TOKIAN-TOKIAN EZAGUTARAZTEKO JARDUERAK EGITEKO

41. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Kapitulu honen xedea da lankidetzan aritzen diren banaketa-kateko eragileei emateko laguntzak arautzea, merkaturatze-bide laburrak eta tokiko merkatuak martxan jarrita edo garatuta beren produktuak merkaturatzeko eta sustatzeko, baita produktuak tokian-tokian ezagutarazteko jarduerak gauzatzeko ere.

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

– Banaketa-kate laburren garapena sustatzea eta tokiko merkatuak promozionatzea.

42. oinarria.– Onuradunak.

Kapitulu honetan arautzen diren laguntzen onuradun izan daitezke berrikuntza-talde bat osatu eta lankidetzeta-planteamenduak aurkezten dituzten entitateak, pertsona fisikoak zein juridikoak.

Jarduera berriak edo asko hobetutako jarduerak ezarriz arazo zehatz bat konpontzeko edo jakineko aukera bat aprobetxatzeko hainbat pertsona fisikok zein juridikok osatutako taldea da berrikuntza-talde bat.

Pertsona fisikoek zein juridikoek osatutako talde horiek ez dute nortasun juridikorik, eta, gutxienez, bi kidek osatuak izan behar dute, euren artean harreman organiko, funtzional edo ekonomikorik ez duten pertsona fisikoak edo juridikoak. Ekoizleen kasuan, pertsona fisiko gisa, ustiategiko titular izan beharko dute, eta ustiategiak EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko du. Ekoizleen erakundeen kasuan, edozein dela ere erakundearen araubide juridikoa, gutxienez % 50 ustiategiko titular izan beharko dira, eta ustiategiak EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko du.

Talde horietan parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarteen eskabideek berriaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Nolanahi ere, izendatu behar da taldearen ordezkari edo ahaldun bat, nahiko ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion obligazioak betetzeko. Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarrak izenpetu eta aurkeztuko du eskabidea berrikuntza-taldearen izenean.

43. oinarria.– Baldintza espezifikokoak.

Agindu honen 5. oinarriko baldintza orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

1.– Proiektuak berritzaileak izan daitezela, berritzaile izateari buruz 3.11 oinarrian jasotako definizioaren arabera.

2.– Proiektuek dokumentu eragile bat izan dezatela, 30 orrialdekoa gehienez, honako hauek jasoko dituen:

a) Proiektu berritzailearen deskribapen xehatua; alderdi ekonomiko eta tekniko guztiak azaldu behar dira, bai eta taldeko kide bakoitzak egingo duen diruz laguntzeko moduko gastu mota bakoitzari dagozkion kostu zehatzak ere.

b) aurreikusitako emaitzen deskribapena.

c) Berrikuntza-taldeko kideen zerrenda, eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.

d) Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.

e) Berrikuntza-taldeko kide bat funtsen hartzaile izendatzea; horrek banatuko ditu funtsok berrikuntza-taldeko gainerako kideen artean.

f) Parte-hartzaile guztien izenpeak.

44. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

Agindu honen 6. oinarriaren arabera eskatzen den dokumentazioaz gain, eskakizunarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

1.– Agindu honen 43. oinarriaren 2. paragrafoan aipatzen den dokumentu eragilearen kopia.

2.– Erantzukizunpeko adierazpena, aurkezten den proiektuaren jarduerak berriak direla adierazten duena.

45. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak eta diruz lagundu ezin direnak.

1.– Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egitearen kostuak;
- b) proiektu bat bideragarri egiteko dagokion eremuan egindako dinamizazio-, sustapen- eta animazio-jardueren kostuak;
- c) lankidetzeta-jardueren funtzionamendu-gastuak;
- d) proiektu pilotuak egiteko beharrezko diren gastuak;
- e) komunikazio- eta hedapen-jardueren kostuak;
- f) langileen kostuak;
- g) zeharkako kostuak (langileen kostuen % 15).

2.– Aurreko paragrafoan zehazten diren kostu diruz lagungarriei dagokienez, hauek izango dira gastuen egozpena eta horren mugak:

- a) Langile-gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- b) Parte-hartzaile bakoitzaren gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- c) Zentro teknologiko edo ikerketa-zentro bakoitzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.
- d) Zeharkako gastuak pertsonaleko gastu zuzenen % 15 izango dira.
- e) Ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzeko edo amortizatzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

3.– Kostu/gastu diruz lagungarriaren zenbatekoak 5.000 euro gainditzen duenean, eskatzaileak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia. Aurrekontuek edo fakturek informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

- a) Bezeroaren izena.
- b) Hornitzailearen izena.

- c) Data.
- d) Kontzeptua.
- e) Aurrekontuaren edo fakturaren zenbakia.
- f) Hizkuntza hauetako batean idatzita egotea: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez.
- g) Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

Eskatzaileak aurkeztutako gastu diruz lagungarrien zenbatekoak ez du gaindituko merkatuko batez besteko balioa.

4.– Diruz laguntzekoak ez diren gastuak izango dira enpresa-planak, ingurumen-planak, basoen kudeaketa-planak edo plan baliokideak gauzatzeari lotutakoak. Halere, proiektu pilotua gauzatzeari lotutako inbertsioak finantzatu egingo dira, proiektuak dirauen bitarteko amortizazioa aplikatuz.

46. oinarria.– Proiektuak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak baloratzeko eta bakoitzari puntuazio bat emateko –proiektu bakoitzaren puntuazioaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 47. oinarriarekin bat–, balorazio-irizpide hauek eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan:

1.– Berrikuntza-taldearen helburua: 25 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldearen helburuak garbi adieraztea:

– Zehaztapen handia: 10 puntu.

– Zehaztapen ertaina: 5 puntu.

– Zehaztapen txikia: 2 puntu.

b) Helburuak Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziarekin lotuta egotea:

– Lotura handia: 10 puntu.

– Lotura ertaina: 5 puntu.

– Lotura txikia: 2 puntu.

c) Ekiten zaion gaiaren garapen-mailaren azterketa:

– Analisi-kalitate handia: 5 puntu.

– Analisi-kalitate ertaina: 3 puntu.

– Analisi-kalitate txikia: puntu 1.

2.– Berrikuntza-taldearen osaera: 15 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldea osatzen duten eragileen egokitasuna justifikatzea:

– Taldekideen % 75-% 100 egokiak: 5 puntu.

– Taldekideen % 50-% 74 egokiak: 3 puntu.

– Taldekideen % 40-% 49 egokiak: puntu 1.

– Taldekide egokiak < % 40: 0 puntu.

b) Lankidetzaren beste berrikuntza-talde batekin:

– Badago lankidetzaren: 2 puntu.

– Ez dago lankidetzarik: 0 puntu.

c) Diziplina anitzeko lankidetzaren:

– Aniztasun-maila handia taldekideen profiletan: 4 puntu.

– Aniztasun-maila ertaina taldekideen profiletan: 2 puntu.

– Aniztasun-maila txikia taldekideen profiletan: puntu 1.

d) Berrikuntza-taldekoak ez diren eragileengana hurbiltzeko gaitasuna:

– Ikusten da inpaktua kanpoko eragileengana iristen dela: 2 puntu.

– Ez da ikusten inpaktua kanpoko eragileengana iristen denik: 0 puntu.

e) Ezagutza-trukeen kantitatea eta kalitatea, eta interakzioak sortzea:

– Maila altua: 2 puntu.

– Maila baxua: 0 puntu.

3.– Proiektuaren ezaugarriak: 60 puntu, gehienez.

a) Proiektuak duen inpaktua produktibitateari eta jasangarritasunari (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) dagokienez:

– Ekarpak handia: 12 puntu.

– Ekarpak ertaina: 6 puntu.

– Ekarpak txikia: 3 puntu.

b) Emaidza praktikoek azken erabiltzaileentzat duten garrantzia:

– Garrantzi handia: 16 puntu.

– Garrantzi ertaina: 8 puntu.

– Garrantzi txikia: 4 puntu.

c) Proiektuaren berrikuntza-potentziala:

- Berrikuntza-maila altua: 16 puntu.
- Berrikuntza-maila ertaina: 8 puntu.
- Berrikuntza-maila baxua: 4 puntu.

d) Ezarpen-plana: espero diren mugarriak eta emaitzak:

- Egokitasun handia: 4 puntu.
- Egokitasun ertaina: 2 puntu.
- Egokitasun txikia: puntu 1.

e) Komunikazio- eta hedapen-plana:

- Egokitasun handia: 4 puntu.
- Egokitasun ertaina: 2 puntu.
- Egokitasun txikia: puntu 1.

f) Jarduera-adierazleak: jarraipena eta kontrola:

- Egokitasun handia: 4 puntu.
- Egokitasun ertaina: 2 puntu.
- Egokitasun txikia: puntu 1.

g) Proiektuaren bideragarritasunaren azalpena eta horren hedapena:

- Justifikazio-maila altua: 4 puntu.
- Justifikazio-maila ertaina: 2 puntu.
- Justifikazio-maila baxua: puntu 1.

47. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Kostu diruz lagungarriaren % 80 izango da laguntzaren gehieneko portzentajea, portzentaje horrentzako % 80 izanik Europak lagundutako finantzaketa-tasa.

2.– Proiektu bakoitzari gehienez ere 100 puntu eman ahal izango zaizkio, eta hautaketa-irizpide bakoitzari 46. oinarrian ezarritako haztapena aplikatuko zaio. Laguntza lortzeko, 40 puntu izan behar dira gutxienez. Aurreko oinarrian xedatutakoarekin bat, proiektu bakoitzak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lortzen duen puntu-kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

- a) Kostu diruz lagungarrien % 80 emango zaie gehienezko puntuazioa lortzen duten proiektuei.
- b) Kostu diruz lagungarrien % 70 emango zaie 1-12 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- c) Kostu diruz lagungarrien % 60 emango zaie 13-18 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- d) Kostu diruz lagungarrien % 50 emango zaie 19-24 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

e) Kostu diruz lagungarrien % 40 emango zaie 25-30 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

f) Kostu diruz lagungarrien % 30 emango zaie 31-36 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

g) Kostu diruz lagungarrien % 25 emango zaie 37-42 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

h) Kostu diruz lagungarrien % 20 emango zaie 43-48 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

i) Kostu diruz lagungarrien % 15 emango zaie 49-54 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

j) Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 10 emango zaie 55-60 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

3.– Puntuazio berdina lortzen dutenen artean, lehentasuna emango zaio «proiektuaren ezau-garriak» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari. Halere, berdinketa egoten jarraitzen badu, lehentasuna emango zaio «berrikuntza-taldearen helburua» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari.

VI. KAPITULUA

KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO EDO HORRETARA EGOKITZEKO EKINTZA BATERATUAK ETA MARTXAN DAUDEN INGURUMEN-PROIEKTUEN ETA -PRAKTIKEN PLANTEAMENDU BATERATUAK GAUZATZEKO LAGUNTZAK

48. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Kapitulu honen xedea da eragileen elkarlanerako laguntzak arautzea, klima-aldaketa apaltzeko edo horretara egokitzeko ekintza bateratuak garatzeko, eta martxan dauden ingurumen-proiektuen eta -praktiken gaineko planteamendu bateratua egiteko.

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

– Ingurumena eta abereen ongizatea errespetatzen duten nekazaritza-ekoizpen eta -praktika sistemak sustatzea.

– Kontsumitzeko uraren erabilera globalean efizientzia sustatzea.

– Nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jardueretan sortutako azpiproduktuak kudeatzea eta baloratzea.

49. oinarria.– Onuradunak.

Kapitulu honetan arautzen diren laguntzen onuradun izan daitezke berrikuntza-talde bat osatu eta lankidetzaren planteamenduak aurkezten dituzten entitateak, pertsona fisikoak zein juridikoak.

Jarduera berriak edo asko hobetutako jarduerak ezarri arazo zehatz bat konpontzeko edo jakineko aukera bat aprobetxatzeko hainbat pertsona fisikok zein juridikok osatutako taldea da berrikuntza-talde bat.

Pertsona fisikoek zein juridikoek osatutako talde horiek ez dute nortasun juridikorik, eta, gutxienez, bi kidek osatuak izan behar dute, euren artean harreman organiko, funtzional edo ekonomikorik ez duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Talde horietan parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarteen eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Nolanahi ere, izendatu behar da taldearen ordezkari edo ahaldun bat, nahiko ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion obligazioak betetzeko. Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarrak izenpetu eta aurkeztuko du eskabidea berrikuntza-taldearen izenean.

50. oinarria.– Baldintza espezifikoa.

Agindu honen 5. oinarriko baldintza orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

1.– Proiektuak berritzaileak izan daitezela, berritzaile izateari buruz 3.11 oinarrian jasotako definizioaren arabera.

2.– Proiektuek dokumentu eragile bat izan dezatela, 30 orrialdekoa gehienez, honako hauek jasoko dituen:

a) Proiektu berritzailearen deskribapen xehatua; alderdi ekonomiko eta tekniko guztiak azaldu behar dira, bai eta taldeko kide bakoitzak egingo duen diruz laguntzeko moduko gastu mota bakoitzari dagozkion kostu zehatzak ere.

b) aurreikusitako emaitzen deskribapena.

c) Berrikuntza-taldeko kideen zerrenda, eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.

d) Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.

e) Berrikuntza-taldeko kide bat funtsen hartzaile izendatzea; horrek banatuko ditu funtsok berrikuntza-taldeko gainerako kideen artean.

f) Parte-hartzaile guztien izenpeak.

51. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

Agindu honen 6. oinarriaren arabera eskatzen den dokumentazioaz gain, eskakizunarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

1.– Agindu honen 50. oinarriaren 2. paragrafoan aipatzen den dokumentu eragilearen kopia.

2.– Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztu den proiektuaren jarduerak berriak direla adierazten duena.

52. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak eta diruz lagundu ezin direnak.

1.– Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egitearen kostuak;

b) proiektu bat bideragarri egiteko dagokion eremuan egindako dinamizazio-, sustapen- eta animazio-jardueren kostuak;

- c) lankidetzeta-jardueren funtzionamendu-gastuak;
- d) proiektu pilotuak egiteko beharrezko diren gastuak;
- e) komunikazio- eta hedapen-jardueren kostuak;
- f) langileen kostuak;
- g) zeharkako kostuak (langileen kostuen % 15).

2.– Aurreko paragrafoan zehazten diren kostu diruz lagungarriei dagokienez, hauek izango dira gastuen egozpena eta horren mugak:

- a) Langile-gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- b) Parte-hartzaile bakoitzaren gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- c) Zentro teknologiko edo ikerketa-zentro bakoitzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.
- d) Zeharkako gastuak pertsonaleko gastu zuzenen % 15 izango dira.
- e) Ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzeko edo amortizatzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

3.– Neurri hauetan oinarritutako jardueren inguruko proiektuen kasuetan –10. neurria: «Nekazaritza eta ingurumena eta klima»; 11. neurria: «Nekazaritza ekologikoa», eta 15. neurria: «Baso eta ingurumenari eta klimari buruzko zerbitzuak eta basoen zaintza»– ez dira diruz laguntzekoak izango hartutako ingurumen konpromisoetatik sortutako ordainketak, zein neurri horietatik zuzenean babestuak izan beharko baitira.

4.– Kostu/gastu diruz lagungarriaren zenbatekoak 5.000 euro gainditzen duenean, eskatzaileak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia. Aurrekontuek edo fakturek informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

- a) Bezeroaren izena.
- b) Hornitzailearen izena.
- c) Data.
- d) Kontzeptua.
- e) Aurrekontuaren edo fakturaren zenbakia.
- f) Hizkuntza hauetako batean idatzita egotea: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez.
- g) Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena

ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

Eskatzaileak aurkeztutako gastu diruz lagungarrien zenbatekoak ez du gaindituko merkatuko batez besteko balioa.

5.– Diruz laguntzekoak ez diren gastuak izango dira enpresa-planak, ingurumen-planak, basoen kudeaketa-planak edo plan baliokideak gauzatzeari lotutakoak. Halere, proiektu pilotua gauzatzeari lotutako inbertsioak finantzatu egingo dira, proiektuak dirauen bitarteko amortizazioa aplikatuz.

53. oinarria.– Proiektuak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak baloratzeko eta bakoitzari puntuazio bat emateko –proiektu bakoitzaren puntuazioaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 54. oinarriarekin bat–, balorazio-irizpide hauek eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan:

1.– Berrikuntza-taldearen helburua: 25 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldearen helburuak garbi adieraztea:

– Zehaztapen handia: 10 puntu.

– Zehaztapen ertaina: 5 puntu.

– Zehaztapen txikia: 2 puntu.

b) Helburuak Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziarekin lotuta egotea:

– Lotura handia: 10 puntu.

– Lotura ertaina: 5 puntu.

– Lotura txikia: 2 puntu.

c) Ekiten zaion gaiaren garapen-mailaren azterketa:

– Analisi-kalitate handia: 5 puntu.

– Analisi-kalitate ertaina: 3 puntu.

– Analisi-kalitate txikia: puntu 1.

2.– Berrikuntza-taldearen osaera: 15 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldea osatzen duten eragileen egokitasuna justifikatzea:

– Taldekideen % 75-% 100 egokiak: 5 puntu.

– Taldekideen % 50-% 74 egokiak: 3 puntu.

– Taldekideen % 40-% 49 egokiak: puntu 1.

– Taldekide egokiak < % 40: 0 puntu.

b) Lankidetzaren beste berrikuntza-talde batekin:

– Badago lankidetzaren: 2 puntu.

– Ez dago lankidetzarik: 0 puntu.

c) Diziplina anitzeko lankidetzak:

– Aniztasun-maila handia taldekideen profiletan: 4 puntu.

– Aniztasun-maila ertaina taldekideen profiletan: 2 puntu.

– Aniztasun-maila txikia taldekideen profiletan: puntu 1.

d) Berrikuntza-taldekoak ez diren eragileengana hurbiltzeko gaitasuna:

– Ikusten da inpaktua kanpoko eragileengana iristen dela: 2 puntu.

– Ez da ikusten inpaktua kanpoko eragileengana iristen denik: 0 puntu.

e) Ezagutza-trukeen kantitatea eta kalitatea, eta interakzioak sortzea:

– Maila altua: 2 puntu.

– Maila baxua: 0 puntu.

3.– Proiektuaren ezaugarriak: 60 puntu, gehienez.

a) Proiektuak duen inpaktua produktibitateari eta jasagarritasunari (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) dagokienez:

– Ekarpen handia: 12 puntu.

– Ekarpen ertaina: 6 puntu.

– Ekarpen txikia: 3 puntu.

b) Emaidza praktikoek azken erabiltzaileentzat duten garrantzia:

– Garrantzi handia: 16 puntu.

– Garrantzi ertaina: 8 puntu.

– Garrantzi txikia: 4 puntu.

c) Proiektuaren berrikuntza-potentziala:

– Berrikuntza-maila altua: 16 puntu.

– Berrikuntza-maila ertaina: 8 puntu.

– Berrikuntza-maila baxua: 4 puntu.

d) Ezarpen-plana: espero diren mugarriak eta emaitzak:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

e) Komunikazio- eta hedapen-plana:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

f) Jarduera-adierazleak: jarraipena eta kontrola:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

g) Proiektuaren bideragarritasunaren azalpena eta horren hedapena:

– Justifikazio-maila altua: 4 puntu.

– Justifikazio-maila ertaina: 2 puntu.

– Justifikazio-maila baxua: puntu 1.

54. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Kostu diruz lagungarriaren % 80 izango da laguntzaren gehieneko portzentajea, portzentaje horrentzako % 80 izanik Europak lagundutako finantzaketa-tasa.

2.– Proiektu bakoitzari gehienez ere 100 puntu eman ahal izango zaizkio, eta hautaketa-irizpide bakoitzari 53. oinarrian ezarritako haztapena aplikatuko zaio. Laguntza lortzeko, 40 puntu izan behar dira gutxienez. Aurreko oinarrian xedatutakoarekin bat, proiektu bakoitzak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lortzen duen puntu-kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

a) Kostu diruz lagungarrien % 80 emango zaie gehienezko puntuazioa lortzen duten proiektuei.

b) Kostu diruz lagungarrien % 70 emango zaie 1-12 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

c) Kostu diruz lagungarrien % 60 emango zaie 13-18 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

d) Kostu diruz lagungarrien % 50 emango zaie 19-24 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

e) Kostu diruz lagungarrien % 40 emango zaie 25-30 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

f) Kostu diruz lagungarrien % 30 emango zaie 31-36 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

g) Kostu diruz lagungarrien % 25 emango zaie 37-42 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

h) Kostu diruz lagungarrien % 20 emango zaie 43-48 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

i) Kostu diruz lagungarrien % 15 emango zaie 49-54 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

j) Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 10 emango zaie 55-60 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

3.– Puntuazio berdina lortzen dutenen artean, lehentasuna emango zaio «proiektuaren ezau-garriak» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari. Halere, berdinketa egoten

jarraitzen badu, lehentasuna emango zaio «berrikuntza-taldearen helburua» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari.

VII. KAPITULUA

HORNIDURA-KATEKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZARAKO LAGUNTZAK, ELIKAGAIETAN, ENERGIA-EKOIZPENEAN ETA PROZESU INDUSTRIALETAN ERABILTZEKO BIOMASAREN HORNIDURA IRAUNKOR BAT LORTZEKO

55. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Kapitulu honen xedea da banaketa-kateko eragileen lankidetzaren horizontalerako eta bertikalerako laguntzak arautzea, elikagaiak egiteko, energia ekoizteko eta industria-prozesuak sortzeko biomasaren hornidura iraunkor bat lortzeko.

Helburua da biomasaren horniketa-katean aritzen diren eragileen gaitasuna handitzea, biomasa hori energia-helburuetarako erabiltzeko: dela basoak kudeatzeko, ustiatzeko eta kontserbatzeko edo dela nekazaritzatik, abeltzaintzatik edo basogintzatik sortutako biomasa eraldatzea bioenergia sortzeko erregai modura erabiltzeko eta, hala, katebegi bakoitzaren balio erantsia eta lehiakortasuna handitzeko eta eragileen artean sinergia sorrarazteko eta elkarlana sustatzeko lankidetzaren proiektuko fase eragile guztietan.

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

– Nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jardueretan sortutako azpiproduktuak kudeatzea eta baloratzea.

56. oinarria.– Onuradunak.

Kapitulu honetan arautzen diren laguntzen onuradun izan daitezke berrikuntza-talde bat osatu eta lankidetzaren planteamenduak aurkezten dituzten entitateak, pertsona fisikoak zein juridikoak.

Jarduera berriak edo asko hobetutako jarduerak ezarri arazo zehatz bat konpontzeko edo jakineko aukera bat aprobetxatzeko hainbat pertsona fisikok zein juridikok osatutako taldea da berrikuntza-talde bat.

Pertsona fisikoek zein juridikoek osatutako talde horiek ez dute nortasun juridikorik, eta, gutxienez, bi kidek osatuak izan behar dute, euren artean harreman organiko, funtzional edo ekonomikorik ez duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Talde horietan parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarleen eskabideek berriaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Nolanahi ere, izendatu behar da taldearen ordezkari edo ahaldun bat, nahiko ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion obligazioak betetzeko. Elkarrearen ordezkari edo ahaldun bakarrak izenpetu eta aurkeztuko du eskabidea berrikuntza-taldearen izenean.

57. oinarria.– Baldintza espezifikoak.

Agindu honen 5. oinarriko baldintza orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

1.– Proiektuak berritzaileak izan daitezela, berritzaile izateari buruz 3.11 oinarrian jasotako definizioaren arabera.

2.– Proiektuek dokumentu eragile bat izan dezatela, 30 orrialdekoa gehienez, honako hauek jasoko dituen:

a) Proiektu berritzailearen deskribapen xehatua; alderdi ekonomiko eta tekniko guztiak azaldu behar dira, bai eta taldeko kide bakoitzak egingo duen diruz laguntzeko moduko gastu mota bakoitzari dagozkion kostu zehatzak ere.

b) aurreikusitako emaitzen deskribapena.

c) Berrikuntza-taldeko kideen zerrenda, eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.

d) Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.

e) Berrikuntza-taldeko kide bat funtsen hartzaile izendatzea; horrek banatuko ditu funtsok berrikuntza-taldeko gainerako kideen artean.

f) Parte-hartzaile guztien izenpeak.

58. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

Agindu honen 6. oinarriaren arabera eskatzen den dokumentazioaz gain, eskakizunarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

1.– Agindu honen 57. oinarriaren 2. paragrafoan aipatzen den dokumentu eragilearen kopia.

2.– Erantzukizunpeko adierazpena, aurkezten den proiektuaren jarduerak berriak direla adierazten duena.

59. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak eta diruz lagundu ezin direnak.

1.– Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egitearen kostuak;

b) proiektu bat bideragarri egiteko dagokion eremuan egindako dinamizazio-, sustapen- eta animazio-jardueren kostuak;

c) lankidetzeta-jardueren funtzionamendu-gastuak;

d) proiektu pilotuak egiteko beharrezko diren gastuak;

e) komunikazio- eta hedapen-jardueren kostuak;

f) langileen kostuak;

g) zeharkako kostuak (langileen kostuen % 15).

2.– Aurreko paragrafoan zehazten diren kostu diruz lagungarriei dagokienez, hauek izango dira gastuen egozpena eta horren mugak:

a) Langile-gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.

b) Parte-hartzaile bakoitzaren gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.

c) Zentro teknologiko edo ikerketa-zentro bakoitzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

d) Zeharkako gastuak pertsonaleko gastu zuzenen % 15 izango dira.

e) Ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzeko edo amortizatzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

3.– Kostu/gastu diruz lagungarriaren zenbatekoak 5.000 euro gainditzen duenean, eskatzaileak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia. Aurrekontuek edo fakturek informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

a) Bezeroaren izena.

b) Hornitzailearen izena.

c) Data.

d) Kontzeptua.

e) Aurrekontuaren edo fakturaren zenbakia.

f) Hizkuntza hauetako batean idatzita egotea: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez.

g) Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

Eskatzaileak aurkeztutako gastu diruz lagungarrien zenbatekoak ez du gaindituko merkatuko batez besteko balioa.

4.– Diruz laguntzekoak ez diren gastuak izango dira enpresa-planak, ingurumen-planak, basoen kudeaketa-planak edo plan baliokideak gauzatzeari lotutakoak. Halere, proiektu pilotua gauzatzeari lotutako inbertsioak finantzatu egingo dira, proiektuak dirauen bitarteko amortizazioa aplikatuz.

60. oinarria.– Proiektuak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak baloratzeko eta bakoitzari puntuazio bat emateko –proiektu bakoitzaren puntuazioaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 61. oinarriarekin bat–, balorazio-irizpide hauek eta dagozkien puntuazioak hartuko dira kontuan:

1.– Berrikuntza-taldearen helburua: 25 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldearen helburuak garbi adieraztea:

– Zehaztapen handia: 10 puntu.

– Zehaztapen ertaina: 5 puntu.

– Zehaztapen txikia: 2 puntu.

b) Helburuak Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziarekin lotuta egotea:

– Lotura handia: 10 puntu.

– Lotura ertaina: 5 puntu.

– Lotura txikia: 2 puntu.

c) Ekiten zaion gaiaren garapen-mailaren azterketa:

– Analisi-kalitate handia: 5 puntu.

– Analisi-kalitate ertaina: 3 puntu.

– Analisi-kalitate txikia: puntu 1.

2.– Berrikuntza-taldearen osaera: 15 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldea osatzen duten eragileen egokitasuna justifikatzea:

– Taldekideen % 75-% 100 egokiak: 5 puntu.

– Taldekideen % 50-% 74 egokiak: 3 puntu.

– Taldekideen % 40-% 49 egokiak: puntu 1.

– Taldekide egokiak < % 40: 0 puntu.

b) Lankidetzaren beste berrikuntza-talde batekin:

– Badago lankidetzaren: 2 puntu.

– Ez dago lankidetzarik: 0 puntu.

c) Diziplina anitzeko lankidetzaren:

– Aniztasun-maila handia taldekideen profiletan: 4 puntu.

– Aniztasun-maila ertaina taldekideen profiletan: 2 puntu.

– Aniztasun-maila txikia taldekideen profiletan: puntu 1.

d) Berrikuntza-taldekoak ez diren eragileengana hurbiltzeko gaitasuna:

– Ikusten da inpaktua kanpoko eragileengana iristen dela: 2 puntu.

– Ez da ikusten inpaktua kanpoko eragileengana iristen denik: 0 puntu.

e) Ezagutza-trukeen kantitatea eta kalitatea, eta interakzioak sortzea:

– Maila altua: 2 puntu.

– Maila baxua: 0 puntu.

3.– Proiektuaren ezaugarriak: 60 puntu, gehienez.

a) Proiektuak duen inpaktua produktibitateari eta jasangarritasunari (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) dagokienez:

– Ekarpen handia: 12 puntu.

- Ekarken ertaina: 6 puntu.
- Ekarken txikia: 3 puntu.
- b) Emaidza praktikoek azken erabiltzaileentzat duten garrantzia:
 - Garrantzi handia: 16 puntu.
 - Garrantzi ertaina: 8 puntu.
 - Garrantzi txikia: 4 puntu.
- c) Proiektuaren berrikuntza-potentziala:
 - Berrikuntza-maila altua: 16 puntu.
 - Berrikuntza-maila ertaina: 8 puntu.
 - Berrikuntza-maila baxua: 4 puntu.
- d) Ezarpen-plana: espero diren mugarriak eta emaitzak:
 - Egokitasun handia: 4 puntu.
 - Egokitasun ertaina: 2 puntu.
 - Egokitasun txikia: puntu 1.
- e) Komunikazio- eta hedapen-plana:
 - Egokitasun handia: 4 puntu.
 - Egokitasun ertaina: 2 puntu.
 - Egokitasun txikia: puntu 1.
- f) Jarduera-adierazleak: jarraipena eta kontrola:
 - Egokitasun handia: 4 puntu.
 - Egokitasun ertaina: 2 puntu.
 - Egokitasun txikia: puntu 1.
- g) Proiektuaren bideragarritasunaren azalpena eta horren hedapena:
 - Justifikazio-maila altua: 4 puntu.
 - Justifikazio-maila ertaina: 2 puntu.
 - Justifikazio-maila baxua: puntu 1.

61. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Kostu diruz lagungarriaren % 80 izango da laguntzaren gehieneko portzentajea, portzentaje horrentzako % 80 izanik Europak lagundutako finantzaketa-tasa.

2.– Proiektu bakoitzari gehienez ere 100 puntu eman ahal izango zaizkio, eta hautaketa-irizpide bakoitzari 60. oinarrian ezarritako haztapena aplikatuko zaio. Laguntza lortzeko, 40 puntu izan

behar dira gutxienez. Aurreko oinarrian xedatutakoarekin bat, proiektu bakoitzak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lortzen duen puntu-kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

- a) Kostu diruz lagungarrien % 80 emango zaie gehieneko puntuazioa lortzen duten proiektuei.
- b) Kostu diruz lagungarrien % 70 emango zaie 1-12 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- c) Kostu diruz lagungarrien % 60 emango zaie 13-18 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- d) Kostu diruz lagungarrien % 50 emango zaie 19-24 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- e) Kostu diruz lagungarrien % 40 emango zaie 25-30 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- f) Kostu diruz lagungarrien % 30 emango zaie 31-36 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- g) Kostu diruz lagungarrien % 25 emango zaie 37-42 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- h) Kostu diruz lagungarrien % 20 emango zaie 43-48 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- i) Kostu diruz lagungarrien % 15 emango zaie 49-54 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.
- j) Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 10 emango zaie 55-60 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

3.– Puntuazio berdina lortzen dutenen artean, lehentasuna emango zaio «proiektuaren ezauzgarriak» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari. Halere, berdinketa egoten jarraitzen badu, lehentasuna emango zaio «berrikuntza-taldearen helburua» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari.

VIII. KAPITULUA

NEKAZARITZA-JARDUERAK DIBERTSIFIKATZEKO LAGUNTZAK HONAKO HAUEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERETARA ALDATZEKO: OSASUN-ARRETA, GIZARTERATZEA, KOMUNITATEAK BABESTUTAKO NEKAZARITZA ETA INGURUMENARI ETA ELIKADURARI BURUZKO HEZIKETA

62. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Kapitulu honen xedea da nekazaritza-jarduerak dibertsifikatzeko lankidetzarako laguntzak arautzea, honako hauekin zerikusia duten jardueretara aldatzeko: osasun-arreta, gizarteratzea, komunitateak babestutako nekazaritza eta ingurumenari eta elikadurari buruzko heziketa.

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

– Ekonomia-jardueren garapen-aukerak ikertzea eta sustatzea, landa-eremuan enplegua sortzeko

63. oinarria.– Onuradunak.

Kapitulu honetan arautzen diren laguntzen onuradun izan daitezke berrikuntza-talde bat osatu eta lankidetzeta-planteamenduak aurkezten dituzten entitateak, pertsona fisikoak zein juridikoak.

Jarduera berriak edo asko hobetutako jarduerak ezarri arazo zehatz bat konpontzeko edo jakineko aukera bat aprobetxatzeko hainbat pertsona fisikoak zein juridikoak osatutako taldea da berrikuntza-talde bat.

Pertsona fisikoek zein juridikoek osatutako talde horiek ez dute nortasun juridikorik, eta, gutxienez, bi kidek osatuak izan behar dute, euren artean harreman organiko, funtzional edo ekonomikorik ez duten pertsona fisikoak edo juridikoak. Ezinbestekoa da lehen sektoreko erakunde baten partaidetza. Ekoizleen kasuan, pertsona fisiko gisa, ustiategiko titular izan beharko dute, eta ustiategiak EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko du. Ekoizleen erakundearen kasuan, edozein dela ere erakundearen araubide juridikoa, gutxienez % 50 ustiategiko titular izan beharko dira, eta ustiategiak EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko du.

Talde horietan parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarteen eskabideek berriaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Nolanahi ere, izendatu behar da taldearen ordezkari edo ahaldun bat, nahiko ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion obligazioak betetzeko. Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarrak izenpetu eta aurkeztuko du eskabidea berrikuntza-taldearen izenean.

64. oinarria.– Baldintza espezifikokoak.

Agindu honen 5. oinarriko baldintza orokorrak ez ezik, honako baldintza hauek ere bete behar dituzte:

1.– Proiektuak berritzaileak izan daitezela, berritzaile izateari buruz 3.11 oinarrian jasotako definizioaren arabera.

2.– Proiektuek dokumentu eragile bat izan dezatela, 30 orrialdekoa gehienez, honako hauek jasoko dituen:

a) Proiektu berritzailearen deskribapen xehatua; alderdi ekonomiko eta tekniko guztiak azaldu behar dira, bai eta taldeko kide bakoitzak egingo duen diruz laguntzeko moduko gastu mota bakoitzari dagozkion kostu zehatzak ere.

b) aurreikusitako emaitzen deskribapena.

c) Berrikuntza-taldeko kideen zerrenda, eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.

d) Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.

e) Berrikuntza-taldeko kide bat funtsen hartzaile izendatzea; horrek banatuko ditu funtsok berrikuntza-taldeko gainerako kideen artean.

f) Parte-hartzaile guztien izenpeak.

65. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

Agindu honen 6. oinarriaren arabera eskatzen den dokumentazioaz gain, eskakizunarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

1.– Agindu honen 64.2 oinarrian aipatzen den dokumentu operatiboaren kopia.

2.– Erantzukizunpeko adierazpena, aurkezten den proiektuaren jarduerak berriak direla adierazten duena.

66. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak eta diruz lagundu ezin direnak.

1.– Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egitearen kostuak;
- b) proiektu bat bideragarri egiteko dagokion eremuan egindako dinamizazio-, sustapen- eta animazio-jardueren kostuak;
- c) lankidetzeta-jardueren funtzionamendu-gastuak;
- d) proiektu pilotuak egiteko beharrezko diren gastuak;
- e) komunikazio- eta hedapen-jardueren kostuak;
- f) langileen kostuak;
- g) zeharkako kostuak (langileen kostuen % 15).

2.– Aurreko paragrafoan zehazten diren kostu diruz lagungarriei dagokienez, hauek izango dira gastuen egozpena eta horren mugak:

- a) Langile-gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- b) Parte-hartzaile bakoitzaren gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 60 baino gehiago.
- c) Zentro teknologiko edo ikerketa-zentro bakoitzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.
- d) Zeharkako gastuak pertsonaleko gastu zuzenen % 15 izango dira.
- e) Ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzeko edo amortizatzeko gastuak ez dira izango proiektuko kostu diruz lagungarri guztien % 30 baino gehiago.

3.– Kostu/gastu diruz lagungarriaren zenbatekoak 5.000 euro gainditzen duenean, eskatzaileak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berriaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia. Aurrekontuek edo fakturek informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

- a) Bezeroaren izena.
- b) Hornitzailearen izena.

- c) Data.
- d) Kontzeptua.
- e) Aurrekontuaren edo fakturaren zenbakia.
- f) Hizkuntza hauetako batean idatzita egotea: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez.
- g) Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

Eskatzaileak aurkeztutako gastu diruz lagungarrien zenbatekoak ez du gaindituko merkatuko batez besteko balioa.

4.– Diruz laguntzekoak ez diren gastuak izango dira enpresa-planak, ingurumen-planak, basoen kudeaketa-planak edo plan baliokideak gauzatzeari lotutakoak. Halere, proiektu pilotua gauzatzeari lotutako inbertsioak finantzatu egingo dira, proiektuak dirauen bitarteko amortizazioa aplikatuz.

67. oinarria.– Proiektuak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak baloratzeko eta bakoitzari puntuazio bat emateko –proiektu bakoitzaren puntuazioaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 68. oinarriarekin bat–, balorazio-irizpide hauetako bat edo hainbat hartuko da kontuan:

1.– Berrikuntza-taldearen helburua: 25 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldearen helburuak garbi adieraztea:

– Zehaztapen handia: 10 puntu.

– Zehaztapen ertaina: 5 puntu.

– Zehaztapen txikia: 2 puntu.

b) Helburuak Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziarekin lotuta egotea:

– Lotura handia: 10 puntu.

– Lotura ertaina: 5 puntu.

– Lotura txikia: 2 puntu.

c) Ekiten zaion gaiaren garapen-mailaren azterketa:

– Analisi-kalitate handia: 5 puntu.

– Analisi-kalitate ertaina: 3 puntu.

– Analisi-kalitate txikia: puntu 1.

2.– Berrikuntza-taldearen osaera: 15 puntu, gehienez.

a) Berrikuntza-taldea osatzen duten eragileen egokitasuna justifikatzea:

– Taldekideen % 75-% 100 egokiak: 5 puntu.

– Taldekideen % 50-% 74 egokiak: 3 puntu.

– Taldekideen % 40-% 49 egokiak: puntu 1.

– Taldekide egokiak < % 40: 0 puntu.

b) Lankidetzaren beste berrikuntza-talde batekin:

– Badago lankidetzaren: 2 puntu.

– Ez dago lankidetzarik: 0 puntu.

c) Diziplina anitzeko lankidetzaren:

– Aniztasun-maila handia taldekideen profiletan: 4 puntu.

– Aniztasun-maila ertaina taldekideen profiletan: 2 puntu.

– Aniztasun-maila txikia taldekideen profiletan: puntu 1.

d) Berrikuntza-taldekoak ez diren eragileengana hurbiltzeko gaitasuna:

– Ikusten da inpaktua kanpoko eragileengana iristen dela: 2 puntu.

– Ez da ikusten inpaktua kanpoko eragileengana iristen denik: 0 puntu.

e) Ezagutza-trukeen kantitatea eta kalitatea, eta interakzioak sortzea:

– Maila altua: 2 puntu.

– Maila baxua: 0 puntu.

3.– Proiektuaren ezaugarriak: 60 puntu, gehienez.

a) Proiektuak duen inpaktua produktibitateari eta jasangarritasunari (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) dagokienez:

– Ekarpak handia: 12 puntu.

– Ekarpak ertaina: 6 puntu.

– Ekarpak txikia: 3 puntu.

b) Emaidza praktikoek azken erabiltzaileentzat duten garrantzia:

– Garrantzi handia: 16 puntu.

– Garrantzi ertaina: 8 puntu.

– Garrantzi txikia: 4 puntu.

c) Proiektuaren berrikuntza-potentziala:

– Berrikuntza-maila altua: 16 puntu.

– Berrikuntza-maila ertaina: 8 puntu.

– Berrikuntza-maila baxua: 4 puntu.

d) Ezarpen-plana: espero diren mugarriak eta emaitzak:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

e) Komunikazio- eta hedapen-plana:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

f) Jarduera-adierazleak: jarraipena eta kontrola:

– Egokitasun handia: 4 puntu.

– Egokitasun ertaina: 2 puntu.

– Egokitasun txikia: puntu 1.

g) Proiektuaren bideragarritasunaren azalpena eta horren hedapena:

– Justifikazio-maila altua: 4 puntu.

– Justifikazio-maila ertaina: 2 puntu.

– Justifikazio-maila baxua: puntu 1.

68. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Kostu diruz lagungarriaren % 80 izango da laguntzaren gehieneko portzentajea, portzentaje horrentzako % 80 izanik Europak lagundutako finantzaketa-tasa.

2.– Proiektu bakoitzari gehenez ere 100 puntu eman ahal izango zaizkio, eta hautaketa-irizpide bakoitzari 67. oinarrian ezarritako haztapena aplikatuko zaio. Laguntza lortzeko, 40 puntu izan behar dira gutxienez. Aurreko oinarrian xedatutakoarekin bat, proiektu bakoitzak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lortzen duen puntu-kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

a) Kostu diruz lagungarrien % 80 emango zaie gehienezko puntuazioa lortzen duten proiektuei.

b) Kostu diruz lagungarrien % 70 emango zaie 1-12 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

c) Kostu diruz lagungarrien % 60 emango zaie 13-18 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

d) Kostu diruz lagungarrien % 50 emango zaie 19-24 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

e) Kostu diruz lagungarrien % 40 emango zaie 25-30 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

f) Kostu diruz lagungarrien % 30 emango zaie 31-36 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

g) Kostu diruz lagungarrien % 25 emango zaie 37-42 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

h) Kostu diruz lagungarrien % 20 emango zaie 43-48 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

i) Kostu diruz lagungarrien % 15 emango zaie 49-54 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

j) Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 10 emango zaie 55-60 puntu (biak barne) gutxiago lortzen dituzten proiektuei.

3.– Puntuazio berdina lortzen dutenen artean, lehentasuna emango zaio «proiektuaren ezau-garriak» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari. Halere, berdinketa egoten jarraitzen badu, lehentasuna emango zaio «berrikuntza-taldearen helburua» balorazio-irizpidean puntuazio altuena lortu duen proiektuari.

ESKABIDEA EGITEKO INPRIMAKIAREN EDUKIA

Laguntzaren eskabidea egiteko formularioa webgune honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029307>

Oinarrizko eduki hau du:

Eremu generikoak:

- Identifikazio-agiriaren mota.
- Zenbakia.
- Izena (pertsona fisikoek soilik).
- Lehen abizena (pertsona fisikoek soilik).
- Bigarren abizena (pertsona fisikoek soilik).
- Sexua (pertsona fisikoek soilik).
- Entitatearen izena (pertsona juridikoek soilik).
- Telefono finkoa.
- Telefono mugikorra.
- Helbide elektronikoa.
- Lurralde historikoa.
- Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea.
- Abisuak jasotzeko helbide elektronikoa.
- Abisuak jasotzeko mugikorra.
- Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza.

Eremu osagarriak: Erantzukizunpeko adierazpena:

– Enpresa ez dago krisialdian, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

– Proiektuak Euskadin ingurumen-gaietan aplikatu beharreko berariazko araudia betetzea (21/2013 Legea, 2013ko abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 3/1998 Lege Orokorra, 1998ko otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoa) – dagokionean, inbertsio-proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatuko da, aurrez–, baita higie-ne-araudia eta inbertsio bakoitzari aplikatu beharreko Erkidegoko arauak ere.

– Jakinaraztea ea diruz lagundu daitekeen proiektu bererako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu zaion administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribaturen bati, baita eskuratu den edo ez ere.

– Basogintza-sektoreko lankidetzarako laguntzetarako eta landa-eremuetako nekazaritzakoak ez diren garapen-proiektuetarako laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan, Batzordearenean, 2013ko abenduaren 18koan, ezarritakoa aplikatu beharko zaie.

2022ko irailaren 9a, ostirala

– Jakinaraztea ea diruz lagun daitekeen proiektu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, baita eskuratu duten ala ez.

	2019. urtea	2020. urtea	2021. urtea
Organo emailea Mininis laguntzengandik kobratutako zenbatekoa			

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta dirulaguntzen esparruan abiarazi duten itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren batean sartuta dagoen edo ez.

– EAEko Administrazioak eta haren mendeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan, itzulketa- edo zigor-prozeduretako kantitate zehatzak ordaintzeko betebeharrari dagokionez egunean dagoen edo ez. Obligazio horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta zorrak geroratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, gaineratutako zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu bada.

– Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen epai irmorik (zigor- edo administrazio-arloan), ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz.

– Konkurtso-deklaraziorik eskatu ez izana; prozeduraren batean kaudimengabetzat deklaraturik ez egotea; konkurtsoan deklaraturik ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek; esku-hartze judizialaren eraginpean ez egotea, edo desgaitua ez egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

– Ez du jaso dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapenik ebazpen irmo baten bidez.

– Ez du administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik eragin, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu dutelarik.

– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo ez daukate Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat, lege horretan edo arlo hau arautzen duen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

– Ez du galdu laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

– Ez du zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

– Elkarteen kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan nahasita ez egotea. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura ez etetea ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egozteagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, harik eta ebazpen judizial irmoa eman, eta, horren bitartez, inskripzioa dagokion erregistroan egin ahal izan arte.

– Ez dagoela berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

Halaber, baimen inplizitua eman beharko du Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki ziurta ditzan NAN, IFZ, zerga-betebeharrak bete izana eta Gizarte Segurantzako ordainketak egin izana; baimen hori berariaz ukatzeko aukera izango du, eta, kasu horretan, eska-tzaileak aurkeztu beharko du dagokion ziurtagiria edo eskatutako agiria.

II. ERANSKINA

Onuradunen erantzukizunak.

1.– Onuradunak egiten dituen informazio- eta komunikazio-jarduera guztietan, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak operazioan lagundu duela adierazi beharko du, honako hauek erakutsiz:

a) Batasunaren enblema.

b) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren laguntzaren aipamena.

2.– Eragiketa bat egiten den bitartean, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak emandako laguntzaren berri emango dio onuradunak jendeari, modu honetan: onuradunak erabilera profesionalerako webgune bat izanez gero, eragiketaren deskribapen laburra jaso beharko du hor, laguntza-mailarekiko proportzioan, haren helburuak eta emaitzak aipatuz, eta Batasunaren finantza-laguntza azpimarratuz.

Informazio- eta publizitate-jardueren ezaugarri teknikoak.

1.– Logotipoa eta lema.

Informazio- eta publizitate-jarduera guztietan, honako elementu hauek sartu beharko dira: Batasunaren enblema https://europa.eu/abc/symbols/emblem/download_es.htm webgunean aurkeztutako arau grafikoekin bat, eta Batasunaren paperaren azalpen bat, honako adierazpen honen bidez emandakoa: «Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa: Europak landaguneetan inbertitzen du».

2.– Jakinarazpen- eta komunikazio-materiala.

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak kofinantzatutako neurriei eta jardueri buruzko argitalpenetan (hala nola liburuxkak, eskuorriak eta aldizkariak) eta tauletan argi eta garbi adieraziko da, azaleko orrialdean, Batasunak parte hartu duela, eta Batasunaren enblema agertuko da, Espainiako edo eskualdeko enblemaren bat ere erabiltzen bada.